



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

9e786e6751fd89705babdc7a1b4f85c493f192b054cad02cfe961b0f46a648c8

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2023KO MAIATZAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2023.05.25

Tolosako Udaletxean, 2023ko maiatzaren hogeita bostean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)

Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).

Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)

Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)

Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)

Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)

Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU), bere eta Aitana Amondarain

Esquisabel (EH BILDU) zinegotziaren izenean.

Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)

Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)

Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)

Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)

Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)

Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala :

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Haurren hiria. Mintza Txokoa. Tolosako Udalbatzari azaltzea landutako proposamenak, eta Tolosako herriari ezagutaraztea ikasturtean landutakoa.
2. Honako akta hauek onartzea:
2023ko apirilaren 27ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2023ko apirilaren 29ko Aparteko Osoko bilkurakoa
3. 2022ko abenduaren 15eko akordioaren aurka ELAk jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioan pertsonatzea. Tolosako Udaleko behin betiko lanpostuen katalogoa eta balorazioa, sailen organigrama berria eta 2023ko Lanpostuen zerrenda onartzen duen akordioaren aurka jarritakoa da errekurtsioa.
4. 2022ko abenduaren 15ean Udalbatzak hartutako akordioaren aurka aurkeztu diren berraztertze errekurtsioak ebaztea, hauei buruzkoa da akordioa: behin betikoz onartzea udaleko lanpostuen katalogoa eta balorazioa, sailen organigrama berria eta 2023ko lanpostuen zerrenda.
5. Onartzea txistu irakasle eta txistulari bandako zuzendari lanpostuaren lanaldia handitzea.
6. Onartzea 2023 urteko udaleko Lanpostu zerrendaren zuzenketa bat, bilkurako gai-zerrendan sartzeari onartu ondoren.
7. Euskal Herria plazako 1 zenbakian kokatutako eraikina zuzeneko emakida esleitzeko prozedura hutsik deklaratzeari, Tolosako Ekinbide Etxeak atzera egin duelako.
8. Tolosako Udalaren ondasun eta eskubideen errolda behin betiko onartzea.
9. Tolosaldeko Mankomunitatearen Estatutuen aldaketa behin betiko onestea.
10. Onartzea Emeterio Arreseko tabernako prezioen eguneraketa.
11. Hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 6/2023 espedienteari.
12. Hasierako onarpena ematea 2023ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenari: 3-2023
13. Hasierako onarpena ematea 2023-2025 dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketari.
14. Itxitako ekitaldiko fakturak onartzea.
15. 2022ko aurrekontu likidazioaren berri ematea.
16. 2023/3 Kreditu aldaketaren berri ematea; kreditu txertaketaren modalitatekoa.
17. 2023/4 Kreditu aldaketaren berri ematea; kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.
18. 2023/5 Kreditu aldaketaren berri ematea; kreditu gehigarrien modalitatekoa.
19. Bide publikoan aldamioren egiturak, garabiak eta obretarako beste bitarteko laguntzaile batzuk instalatzeko udal ordenantza behin betiko onestea.
20. locus Basque SL establezimenduaren jarduera mugatzeko eta hala badagokio ixteko neurriak har ditzan Eusko Jaurlaritzari eskatzea.
21. Galderak eta eskaerak.



Idazkariak adierazi du 2/2016 legeak, Euskadiko Toki Erakunde buruzkoak, 25.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Aitana Amondarain Esquisabel zinegotziak bere botoa eskuordetzan eman diola Andu Martinez de Rituerto Arregui zinegotziari, azken honek balia dezan.

Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari heldu diote.

Jarraian, Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. **HAURREN HIRIA. MINTZA TXOKOA. TOLOSAKO UDALBATZARI AZALTZEA LANDUTAKO PROPOSAMENAK, ETA TOLOSAKO HERRIARI EZAGUTARAZTEA IKASTURTEAN LANDUTAKOA.**

Alkateak ongi etorria eman die bertaratu diren Herrikide, Laskorain eta Felix Samaniego ikastetxeetako ikasleen ordezkariak eta adierazi du Legealdi honetako azkenengo osoko bilkura dela eta ez dagoela modu egokiagokorik Tolosako Haurren hiriaren programako partaideek egindako proposamenekin amaitzea baino. Ikasturtean zehar egindako lana eskertu ondoren lanaren laburpen bideoa aurkeztu dute.

Jarraian, "Tolosako Haurren Hiria" programaren partaideek lanaren ondorioak, azaldu dituzte:

Gaia: Osasun mentala eta emozionala.

1 ATALA: ikasturtean zehar egindako lanaren laburpena.

1 Herrikide:

Kaixo! Egun on guztioi, gu Tolosako haur ordezkariak gara eta Haurren Hirian egin duguna kontatzera gatoz.

2 Laskorain:

Ikasturte honetan bost aldiz elkartu gara, eta ikastetxe ezberdineako haurrak elkarrekin aritu gara Tolosako kultur etxean.

3 Samaniego:

Saio hauen bitartez "Osasun mentala eta emozionala" landu dugu eta gure iritzia emateko aukera izan dugu.

4 Herrikide:

Emozioak, heriotza eta dolua, jazarpena eta bakardadearen inguruan hitz egin dugu. Saio bakoitzean aditu batekin aritu gara.



5 Laskorain:

Adituarekin egon eta gero, gai bakoitzaren inguruan hitz egin dugu, ariketa eta jolas ezberdinak eginez.

6 Samaniego:

Helburu nagusia Tolosa nola hobetu dezakegun ikustea izan da, horretarako denok gure aldetik jarri behar dugu eta.

II ATALA: herriaren egoera hobetzeko proposamenen aurkezpena.

7 Herrikide:

Aterpeak egotea euria egiten duenean jolasteko, parkeetan barne. Asteburuetan zezen plaza eta eskolak irekita egotea.

8 Laskorain:

Natura gehiago zaindu kutsadura gutxituaz eta zezen plaza eta ibaia garbituaz.

9 Samaniego:

Toki ilunetan argia jartzea.

10 Herrikide:

Kalean bizi diren pertsonentzat eta adineko pertsonentzat etxeak, egoitzak edo aterpeak egitea.

11 Laskorain:

Arreta psikologikoa doan eskaintzea eta eskola publikoa bermatu haur guztientzat.

12 Samaniego:

Doluaren inguruan hitz egiteko tertuliak antolatzea. Udalak lagundu dezake tailer bat antolatzen eta ulertuko diren pertsonen artean hitz egin dezaten.

13 Herrikide:

Eskoletan zehazki bullying-ari buruz laguntzeko irakasle bat.

14 Laskorain:

Tolosako Udalak ikastaro moduko bat egitea: gaizki pasatzen ari diren ume, gazte zein helduk beraien gauzak kontatu ditzaketen eta jazarpena egiten dutenek honetaz konturatu eta gehiago ez egiteko.

15 Samaniego:

Eskoletan jazarpenari buruzko saio bat egotea urtero (zer egin dezakegun egoera horietan, zer egin zuk jasotzen baduzu...).

16 Herrikide:

Bakardadea sufritzen duten pertsonentzat leku bat, topagune modukoa baina haurrentzat eta helduentzat.



17 Laskorain:

Jendea gehiago sozializatzeko ekintzak antolatzea, adibidez, bakarrik sentitzen diren haurrei laguntzeko ikastaro bat, edo interneten lagun berriak egiteko orrialderen bat.

18 Samaniego:

Ikastetxeetan bakardadeari aurre egiteko laguntza eskaintzea: saio bereziak antolatu, bakarrik dauden haurrak elkartu, etabar.

Ondoren, Udaleko hiru talde politikoen ordezkariak eskerrak eman dizkie egindako lana eta aurkezpenarengatik. Azpimarratu dute landutako gaiaren zailtasuna eta garrantzia egunerokotasunean. Egindako ekarpenak oso onak direla eta Tolosako Udalak kontuan hartuko dituztela aurrerantzean.

Alkateak Tolosako Haurren Hiria programaren diploma banatu die Haur ordezkariari, eta ondoren talde argazkia atera da.

**2. HONAKO AKTA HAUEK ONARTZEA:
2023KO APIRILAREN 27KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.
2023KO APIRILAREN 29KO APARTEKO OSOKO BILKURAKOA**

Izenburuan aipatutako aktak aho batez onartu dituzte.

3. 2022KO ABENDUAREN 15EKO AKORDIOAREN AURKA ELAK JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN PERTSONATZEA. TOLOSAKO UDALEKO BEHIN BETIKO LANPOSTUEN KATALOGOA ETA BALORAZIOA, SAILEN ORGANIGRAMA BERRIA ETA 2023KO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEN DUEN AKORDIOAREN AURKA JARRITAKOA DA ERREKURTSOA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023eko maiatzaren 17ko irizpena

2023ko maiatzaren 8an ELA sindikatuak Donostiako Administrazioarekiko 3 zenbakidun epaitegian, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri du honako erabaki honen aurka: Osoko bilkurak, 2022ko abenduaren 15ean behin betiko izaeraz Tolosako udaleko Lanpostuen katalogoa eta balorazioa, sailen organigrama berria eta 2023ko Lanpostuen zerrenda onartzea.

Honela, uztailaren 13ko 28/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea jarraituz, beheran azaltzen den proposamena egin da.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko maiatzaren 17an egindako bilkuran,



gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Egoitz Sorozabal Iturain eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

Lehena.- Tolosako udala 220/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan alderdiemandatu gisa agertzea.

Bigarrena.- Espediente administratiboa Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegira bidaltzea 20 laneguneko epean, Epaitegiko ofizioa eta erantsitako dokumentazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena.- Erabaki hau prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei jakinaraztea eta bederatzi eguneko epea ematea, errekurtso honetan demandatu gisa pertsonatzeko aukera emanaz.

Laugarrena.- Tolosako Udala ordezkatu eta defendatzeko honako abokatuak izendatzea: Javier Hernaez Manrique eta Leire Lertxundi Beristain.

Bosgarrena.- Enplamazamenduari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkakoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui bere eta Aitana Amondarain Esquisabel zinegotziaren izenean, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du 2022ko abenduaren 15eko akordioaren aurka ELAK jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsoan pertsonatzea. Tolosako Udaleko behin betiko lanpostuen katalogoa eta balorazioa, sailen organigrama berria eta 2023ko Lanpostuen zerrenda onartzen duen akordioaren aurka jarritakoa da errekurtsoa.



4. 2022KO ABENDUAREN 15EAN UDALBATZAK HARTUTAKO AKORDIOAREN AURKA AURKEZTU DIREN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAK EBAZTEA, HAUEI BURUZKOA DA AKORDIOA: BEHIN BETIKOZ ONARTZEA UDALEKO LANPOSTUEN KATALOGOA ETA BALORAZIOA, SAILEN ORGANIGRAMA BERRIA ETA 2023KO LANPOSTUEN ZERRENDA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023eko maiatzaren 17ko irizpena

AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako udalak Rodriguez Viñals enpresarekin zerbitzu kontratua sinatu zuen 2019ko irailaren 5ean Tolosako udaleko lanpostuen deskribapena, azterketa, balorazioa eta sailen organigrama berria egiteko.

Bigarrena.- Behin lan teknikoen izapidetza guztia amaitu ondoren, Udalbatzak 2022ko ekainaren 30ean behin-behineko izaeraz onartu zuen lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama berria eta lanpostu zerrendaren aldaketa. 2022ko abenduaren 15ean Udalbatzak behin-betiko izaeraz onartu zituen egindako lanak, alegazioen ondorioz eman ziren aldaketekin batera.

Hirugarrena.- 2022ko abenduaren 15ean hartutako akordioa ere, eragindako langile bakoitzari indibidualki jakinarazi zitzaion eta baita ere hartutako akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (2023ko otsailaren 7an, 25 zenbakia).

Laugarrena.- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan araututakoari jarraituz, interesatuek aukera izango du birjarpen errekurtsoa aurkezteko Udalbatzari, hilabete bateko epean jakinarazpena jaso edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita. Epealdi honetan 19 errekurtsu aurkeztu dira.

GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Lehena.- Lanpostuen balorazioak jarraitu dituen irizpide orokorrak Rodriguez Viñalsek egindako azterketa teknikoan oinarrituak izan dira; honela, enpresak jarraitutako metodologia ontzat hartu eta aplikatu da; zentzu honetan, balorazio prozesu guztian zehar, azterketaren fase desberdinetan, zerbitzuen arduradunek, sail bakoitzeko zinegotziek eta udal langileek alegazioak eta aldaketa proposamenak egiteko aukera izan dute.

Honetaz gain, Rodriguez Viñalsek egindako proposamena 2022ko ekainaren 30ean hasierako izaeraz onartu ondoren, berriro ere alegazio fase bat ireki zen, alegazio horiek aztertu eta udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean behin-betiko izaeraz onartu



zituen, beti ere aipaturiko aholkularitzak egindako azterketa eta irizpideak kontuan hartuta.

Lan tekniko hauen emaitza, besteen artean, honako printzipio nagusietan oinarritu da; aurrenekoa, balorazioa Tolosako Udalaren esparrura mugatu dela, erakundearen berezko ezaugarriak kontuan hartuta. Bestaldetik, balorazioa oinarritu dela udal organigramak xedaturiko estrukturan (ardurak, eragina, hierarkizazio-printzipioa...) eta azken printzipioa, orekarena izan dela. Enpresak adierazi duenaren arabera “ *el proceso de valoración de puestos de trabajo es la técnica que debe permitir asignar objetivamente un valor al puesto, en referencia relativa a los restantes de la misma organización, es decir, lo fundamental es guardar la conveniente equidad interna, fruto de la objetivación de sus diferencias*”. Aurkeztutako helegiteak aztertu ondoren, hainbat helegiteetan eskatzen diren irizpide eta puntuaketen aldaketak, lanpostuen eta organigramen antolaketa eta hierarkizazioa aldatzea ekarriko lukete eta hau kasu batzuetan ez litzateke bat etorriko onartutako organigrama eta sail berrieke. Beste kasuetan, puntuazio hurrenkerak aldatzea hainbat kasuetan antolakuntza sistemaren eta lanpostu ezberdinen arteko oreka galtzea ekarriko luke, baita desorekak lanpostuen artean, eta udalaren funtzionamenduan ere eragina izango lukete. Azkenik, hainbat helegiteetan errepikatzen dira jadanik erantzun ziren argudioak edota eskaerak, udalbatza osoak bere egunean erantzun zituenak.

Bigarrena.- Beraz, aurkeztu diren berraztertze errekursoak ebazterako orduan, honako irizpide nagusiak erabiltzea proposatzen da:

- Udalaren osoko bilkurak bere garaian ezetsi zituen alegazioetan oinarritzen diren errekursoak ezestea, atal honetan aipatutako salbuespenetatik etor daitezkeenak izan ezik.
- Udal lanpostuen arteko oreka, eta onarturiko organigramaren hierarkizazioa eta antolaketa eragiten duten helegiteak ez onartzea.
- Akats materialak zuzentzea.
- Lanaldia handitzeko eskaerei dagokienez, aurkeztutako errekursoetako bat baiesteko, kontuan hartu dira lanpostu horren ezaugarrien aurrekariak (jadanik lantsio luzatua zeukan) eta balorazio-prozesuak iraun duen denboran sortutako faktore bereziak (armen auziaren ondorioak), eta dagokion sailaren definizioa eta antolaketa ere, Plan Estrategiko baten bidez.

Azkenik, aipamen berezi bat egin behar da, honako faktoreei buruz:

- Pertsonalaren kudeaketaren zereginen handitzea: araudi berriak, ohiko eta ez ohiko hautaketa-jardunbideek, bitartekotasunarekin amaitzeko bestelako neurri bereziek, negoziatio kolektiboan emandako aldaketek jurisprudentzian (gai batzuetan kontuan hartu beharko da eragindako pertsonalaren izaera), langileen plantilaren handitzeak, formazioaren beharrek...eskatzen dituzte antolakuntza eta planifikazioa, eta gaur egungo baliabideekin hori oso zaila da. Departamentu honen azterketa, diagnosis eta birdiseinua beharrezkoak dira.
- Ondarearen kudeaketari dagokionez, etxebizitza parkea geroz eta handiagoa da: Udalaren jabetzako etxebizitzari, Erretengibel sozietatetik etorri direnak erantsi behar dira, gehi udalak sustatu edo kudeatu behar dituenak. Beharrezkoa da gaur egun Sail bati esleitzen ez zaizkion garajeen kudeaketa antolatzea. Jabekideen Erkidegoetatik datozen zereginak gero eta handiagoak



dira... Zentzu honetan, Etxebizitza Departamentuaren antolaketa eta osaketa berraztertu behar da.

- Faktore hauek ez dira kontuan hartu balorazioaren prozesuan, eta dokumentu hau izenpetzen duenaren iritziz, abordatu behar dira lehenbailehen.

Hirugarrena.- Helegitei dagokienez, honako hau proposatzen da, aurretik emandako irizpideen arabera:

1.- A.M.Y.k egindako errekurtsioan, "Ofizialorde" lanpostuari dagokionean, bere lan jarduna handitzeko arrazoiak daude, zehazki bi zeregin berrien ondorioz: bata, Udaltzaingoaren Plan estrategikotik sortutako zereginak eta bestalde, udaltzainek su armak eramateko beharko duten gainbegiratzea eta erantzunkizunak emango dituen lanak. Bai Plan estrategiko berriaren garapena eta jarraipena, baita su armen kontrola eta ikuskapena denboran zehar mantentzea aurreikusten da, horregatik lan jarduna lanaldi luzatuaren modalitatean mantentzeko proposamena egiten da, urteko lanaldia 1685 orduetan finkatuaz.

2.- D.T.O.k eta S.B.M.k aurkeztutako errekurtsioetan, "Txofer-personal balioaniztuna" lanpostuaren deskribapena zuzentzea eskatzen du; behin lanpostu honen funtzioak aztertu ondoren, adierazi behar da jadanik funtzio horiek islatzen direla bere katalogoan, alegia, 9 zenbakian azaltzen den deskripzioa ("9. Langile polibalenteko lanpostuaren funtzioak egitea, zerbitzuak horrela behar duenean"), Honela, "Personal balioaniztun" lanpostuaren funtzioei egiten die erreferentzia eta mantenuari buruzko funtzioak bederatzi zenbaki horretan barneratuak daudela kontsideratzen da. Dena den, gaia argi uzteko helburuarekin, lanpostuaren deskribapenean espresuki zehaztuko dira funtzio horiek, hain zuzen ere:

"MANTENTZE-LANAK:

1. Lorategietan eta haietako azpiegituretan mantentzeko oinarrizko lanak egitea: urmaelak hustea, hodia libratzea, instalazio-makina abian jartzea, etab.
2. Hiri-altzariak mantentzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko lanak egitea: seinaleak, oztopo-zutoinak, barandak, estolderia-estalkiak, bankuak, jolas-eremuak, etab.
3. Udal-eraikinetako instalazio elektrikoak mantendu eta matxurak konpontzeko oinarrizko lanak egitea: luminariak, erreaktantziak, bonbillak, etengailuak eta abar aldatzea.
4. Eraikin eta ondasun publikoetan oinarrizko errementeria-lanak egitea: inauterietako karrozak zatikatzea, biltegitartzeko orgak egitea, bandak, hesiak eta abar konpontzea.
5. Eraikin eta ondasun publikoetan oinarrizko zurgin-lanak egitea: altzariak, agertokietako taulak eta astoak konpontzea, etab.
6. Eraikin publikoen barruan eta kanpoan (hormak, barandak, hiri-altzariak, etab.) oinarrizko pintura-lanak egitea.
7. Barneko eta kanpoko igeltserotzaren mantentze-lanak egiten laguntzea.



8. Bide publikoa garbitzeko lanak egitea, bai eta esparru itxietan ere, ezohiko egoeretan: kaleko elurra kentzea, gatza barreiatzea, bulkatzeko ponpen bidez ura xukatzea, estolderiako hustubideak libratzea, etab.
9. Eraikitzeko materialak, makineria, tresnak eta abar kargatu eta deskargatzea, eta toki egokietara garraiatzea.
10. Egoera txarrean dauden bide-seinaleak kentzeaz eta berria jartzeaz arduratzea.”

Zentzu berean, mantenu lanei dagozkion funtzioak baloratzea eskatzen du. Kasu honetan, kontuan hartuta “txofer- pertsonal balioaniztun” lanpostuaren funtzioak obra lan taldeko gainerako pertsonalaren funtzio berdinak egiten dituela, kamioa gidatzea ez ezik, lanpostuaren balorazioaren berrikuspen bat egitea egokia litzateke. Zentzu honetan, hauxe da egiten den proposamena:

<u>Faktorea</u>	<u>Eguno balorazioa</u>	<u>Balorazio proposamen berria</u>
Espezializazioa	50	50
Esperientzia	50	50
Agintea	0	0
Ohiartzuna	100	75
A. intelektuala	0	0
A. Fisikoa	25	75
Nekagarritasuna	50	100
Arriskugarritasuna	25	50
Lanaldia	50	50
Dedikazioa	0	0

Balorazio proposamen hau “Txofer-pertsonal balioaniztun” lanpostuaren deskribapena eta “Pertsonal balioaniztun” lanpostuaren deskribapena kontuan hartuz egin dira; honela, 25 puntuko aldea egongo litzateke bi lanpostuen artean, kamioaren gidaritzak eskatzen duen espezializazioarengatik.

3.- Zuzenketaren proposamena: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko otsailaren 14an onartu berri duen 2023 urteko egutegia eta barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioaren ondorioz, lan saio mota ezberdinak finkatu ditu, lanpostuaren baloraziotik eratorritzen direnak; honen ondorioz, udalak onartu berri duen instrukzioak hauxe xedatzen du:



“9.- Lan saio bereziak.

Lanpostuen balorazioaren ondorioz, bi lanaldi mota aldatu eta eguneratu egin dira eta modu honetan geratu dira:

.../...

b) *Lan saio malgua: zerbitzuen beharretara egokitzen dena, urtean 1592 ordu. Kasu honetan, eguneko ohiko lanaldia izango badu ere, zerbitzuaren beharrak ezarritako jardueretara baldintzatua egongo da beren ordutegia, beti ere lanpostuen ohiko zereginetan goizeko orduetatik kanpoko jarduerak burutzen direla kontuan hartuta. Honela, egutegi mota hau duten lanpostuak honako irizpideak jarraitu beharko dituzte:*

- Egutegiarekin batera urteroko planifikazio bat aurkeztu beharko dute, aurreikusiaz ze ordu kopuru sartuko lituzketen goizeko ordutegitik kanpo. Proposamen horren arabera, Giza Baliabide sailak egutegia aztertu eta oniritzia eman edo aldaketak proposatuko ditu.

- Giza Baliabideetako sailean dagoen informazioa kontuan hartuta, planifikazioarekin lotutako malgutasunezko ordu-kopurua gehienez honakoa izango da:

1.- Bulegoetako langileak: 40 ordu.

2.- Kultur teknikaria:80 ordu.

3.- Brigadako lantaldea: 80 ordu.

4.- Udaltzainak: berezko egutegian adierazten dena.

Dena den, programatu edo planifikatu gabeko lan saioetara deitu ahal izango da, beti ere salbuespenezko izaeraz eta hiru eguneko epeaz abisatuz gero, beti ere programatutako gehienezko ordu kopurua agortu ez bada. Bestelako kasuan, ez ohiko orduen izaera emango zaie ordu hauei.

Kasu guztietan irizpide hauek berraztertu eta eguneratuko dira, Giza Baliabideetako sailean jasotako datuen arabera.”

Brigadako langileek 2023ko egutegietan planifikatuta dituzten goizeko lanaldiz kanpoko azoka bereziak, herriko festak edo ekitaldiak, urteko goizeko lanalditik kanpoko orduen batz bestekoa 80 ordukoa izango da; hortaz, udal honek onartu dituen irizpideak aintzat hartuz, brigadako lan taldean lan egiten duten eta “lanaldi” faktorea baloratua duten lanpostuen balorazioaren zuzenketa egitea proposatzen da.

Honela, kontuan hartuta urtean goizeko lanaldiz kanpo gutxi gora behera 80 ordu sartuko dituztela, “lanaldi” faktorea 100 punturekin baloratzea proposatzen da ezaugarri hau duten izaera berdineko beste lanpostuekin homogeneitate bat izateko helburuarekin.

Beraz, “Txofer-pertsonal balioaniztun” lanpostuari lanaldi faktorea aldatu zaion bezala, baldintza eta ordutegi berdinetan jarduten duten Brigadako lan taldeak (“Pertsonal



balioaniztun” eta Igeltsero balioaniztun” lanpostuak”), lanaldi faktorea 50 punturekin baloratua duten lanpostuei, bere egutegiaren baitan 80 orduko ohiko lanalditik kanpoko lan saioa duten kasuetan, 100 puntu aplikatzea proposatzen da, akatsa zuzenduaz.

4.- G.A.G.k aurkeztutako errekurtsioan, honakoa adierazten du: 2023ko otsailaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean udaleko Lanpostu zerrenda argitaratu zen; 6.201 kodea duen “disziplina eta jardueretako arkitekto-tekniko” lanpostuari, 4. hizkuntz eskakizuna jarri zaio 1994ko urtarrilaren 31ko derrigortasun datarekin. Deskribapen hau akats bat dela adierazten du.

Behin bere alegazioa aztertu ondoren, hizkuntz eskakizunari dagozkion ezaugarriak, 6.201 kodea duen lanpostuan ez du aldaketarik jasan eta hortaz, akatsa zuzentzen da eta “Disziplina eta jardueretako arkitekto-tekniko” lanpostuari 3. Hizkuntz eskakizuna jarriko zaio, 1994ko urtarrilaren 31eko derrigortasun datarekin, orain arte bezala.

Baita ere, lehen puntuan aipaturiko 6.201 kodea duen “Disziplina eta jardueretako arkitekto-tekniko” lanpostua “Obrak eta zerbitzu” sailaren barnean kokatu da eta organikoki “Hirigintza eta Obrak” zerbitzuaren barnean egon beharko luke. Behin helegitea aztertu ondoren, hau zuzentzen da eta “Hirigintza eta Obrak” sailean kokatuko da lanpostua.

Laugarrena.- Amaitzeko, hainbat sailetan dauden beharren diagnosis eta baliabideen berazterketa bat egitea proposatzen da, datozen urteetan sortuko diren erronkei aurre egiteko, besteen artean giza baliabideak edota etxebizitza sailak leudeke.

Amaitzeko, erabaki hauek hartu ahal izateko dagokion kreditu aldaketa bideratu beharko da.

Hau guztia kontuan hartuta, Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Egoitz Sorozabal Iturain eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, gehiengoz, honako **irizpen** hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- A.M.Y.k aurkeztutako berazterte helegitea partzialki onartzea eta Ofizialorde lanpostuari lanaldi luzatua ezartzea, urtean 1.685 orduko lanaldia finkatuaz.



BIGARRENA.- D.T.O.K eta S.B.M.k aurkeztutako berraztertze errekurtsuak onartzea eta “Txofer-pertsonal balioaniztun” lanpostuan mantenuari dagozkion funtzioak lanpostuaren deskribapenean espresukii txertatzea.

Aldi berean, esleitutako funtzioen ondorioz, lanpostu honi balorazio berria finkatzea. Halaber, lanaldi faktoreari buruz egindako alegazioa onartzea eta hortaz, honako balorazioa aplikatzea:

Faktorea	Egungo balorazioa	Balorazio proposamen berria
Espezializazioa	50	50
Esperientzia	50	50
Agintea	0	0
Ohiartzuna	100	75
A. intelektuala	0	0
A. Fisikoa	25	75
Nekagarritasuna	50	100
Arriskugarritasuna	25	50
Lanaldia	50	100
Dedikazioa	0	0
Guztira	650	800

HIRUGARRENA.- “Txofer-pertsonal balioaniztun” lanpostuari lanaldi faktorea aldatu zaion bezala, baldintza eta ordutegi berdinetan jarduten duten Brigadako lan taldeko langileei (“Pertsonal balioaniztun” eta Igeltsero balioaniztun” lanpostuak”), lanaldi faktoreari 100 puntu esleitzea.

LAUGARRENA.- G.A.G.k aurkeztutako errekurtsua onartzea eta 6.201 kodea duen “Disziplina eta jardueretako arkitekto-tekniko” lanpostuari 3. Hizkuntz eskakizuna finkatzea, 1994ko urtarrilaren 31eko derrigortasun datarekin, orain arte bezala.

Horretaz gain, aipaturiko 6.201 kodea duen “Disziplina eta jardueretako arkitekto-tekniko” lanpostua “Hirigintza eta Obrak” zerbitzuaren barnean kokatzea.

BOSGARRENA.- Aurkeztutako gainontzeko berraztertze errekurtsuak ez onartzea, honako arrazoi hauetan oinarrituta, kasuz kasu:



- Udalaren osoko bilkurak bere garaian ezetsi zituen alegazioetan oinarritzen direlako (A.M.Y., E.Z.I., J.E.I., C.L.M., S.B.I., X.V.A., A.O.C., S.E.A., A.L.A., A.G.A. eta O.O.S.).
- Udal lanpostuen arteko oreka, eta onarturiko organigramaren hierarkizazioa eta antolaketa eragiten duten helegiteak ez onartzea (J.E.I, C.L.M., A.O.C, A.B.B., A.A.L., I.Z.A., A.R.U., A.L.A., G.L.I., A.G.A. eta O.O.S.).
- Lanaldiaren luzapenari dagokionez, egindako helegiteak ezestea une honetan, irizpen honen lehen atalean aipaturikoa salbu. Izan ere, aurkezturiko eskaerak, sail bakoitzaren jarduera, estruktura eta funtzionamenduaren analisi, diagnostiko eta plangintza baten aztertu behar da, horren beharra justifikatzen duena. Ondoren, korporazioak erabakiko du (G.L.I. eta A.R.U.).

SEIGARRENA.- Erabaki hauek baldintzatzea dagokion kreditu aldaketa onartzen den arte.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen hau errekurtsoa jarri duen langile bakoitzari jakinaraztea, irizpen honetan jasotakoaren arabera.

Lanpostuen balorazioaren beraztertze errekurtsoak

Langilea	Errekurtso data	Erregistro zenbakia	Edukiaren laburpena	Erantzun proposamena
AMY	2023-01-30	2070	Bi faktore alegatzen ditu: ahalegin fisikoa eta lanaldi luzatua eskatzen du.	Partzialki onartzen da: lanaldi luzatua esleitzen zaio lanpostuari.
SBM	2023-02-01	2307	- Lanpostuaren deskribapena: peoi lanak ere egiten ditu.	Onartzen da eta balorazio berria aplikatu. Baita lanaldiari buruzko puntuazioa handitzen da.
DTO	02-02-2023/ 27-02-2023	2446/3416	Bi gai alegatzen ditu: - Lanpostuaren deskribapena: peoi lanak ere egiten ditu. - Lanaldia: 100 punturekin baloratzea eskatzen du, egutegiaren arabera.	Onartzen da.



Lanpostuen balorazioaren beraztertze errekurtsioak

Langilea	Errekurtso data	Erregistro zenbakia	Edukiaren laburpena	Erantzun proposamena
EZI	13-02-2023	2893	Bi faktore alegatzen ditu; - Lanaldia: errebisioa eskatzen du. - Funtzioak: berriro aztertzea eskatzen du.	Ez da onartzen. Lanaldia eta ordutegia ondo daude eta funtzioak ere bai.
JEI	13-02-2023	2933	Lau faktoreen berrikuspena eskatzen du: ahalegin intelektuala, ahalegin fisikoa, ohiartzuna eta arriskugarritasun faktorea.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da eta lanpostuen arteko oreka hausten du.
CLM	14-02-2023	2976	Lau faktoreen berrikuspena eskatzen du: espezializazioa, esperientzia, agintea eta lanaldi faktorea.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da eta lanpostuen arteko oreka hausten du.
ARU	16-02-2023	3105	Hiru faktoreen berrikuspena eskatzen du: espezializazioa, ohiartzuna eta dedikazioa. Lanaldi luzatua ere eskatzen du.	Ez da onartzen. Udal lanpostuen arteko oreka hausten du.
SBI	17-02-2023	3115	Atzeraeragin ondorioak 2015eko apirilaren 7tik aurrera ematea bere balorazioari.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da.
XVA	17-02-2023	3121	Lanpostuari 3 HE jartzea eskatzen du.	Ez da onartzen, lanpostuak 4 HE behar du.
AOC	20-02-2023	3146	Hiru faktore berrikustea eskatu du: nekagarritasuna, dedikazioa eta lanaldia.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da eta lanpostuen arteko oreka hausten du.
SEA	20-02-2023	3147	Lanpostuaren deskribapena aldatzea eta bi faktoreen berrikuspena eskatzen du: ohiartzuna eta lanaldia.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da eta lanpostuen arteko oreka hausten du.



Lanpostuen balorazioaren beraztertze errekurtsuak

Langilea	Errekurtsu data	Erregistro zenbakia	Edukiaren laburpena	Erantzun proposamena
ABB	20-02-2023	3154	Bost faktoreen berrikuspena eskatzen du: espezializazioa, esperientzia, ohiartzuna, nekagarritasuna eta dedikazioa.	Ez da onartzen. Udal lanpostuen arteko oreka hausten du.
AAL	01-03-2023	3555	Bi faktoreen berrikuspena eskatzen du: ohiartzuna eta nekagarritasuna.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da eta lanpostuen arteko oreka hausten du.
IZA	01-03-2023	3585	Esperientzia faktorearen berrikuspena eskatzen du.	Ez da onartzen. Udal lanpostuen arteko oreka hausten du.
GLI	06-03-2023	3854	Hiru faktoreen berrikuspena eskatzen du: espezializazioa, agintea eta ohiartzuna. Baita ere lanaldi luzatua eskatzen du.	Ez da onartzen. Udal lanpostuen arteko oreka hausten du.
ALA	06-03-2023	3892	Lau faktoreen berrikuspena eskatzen du: titulazioa, espezializazioa, ohiartzuna eta dedikazioa.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da eta lanpostuen arteko oreka hausten du.
AGA	21-02- 2023/06-03- 2023	3169/3904	Sei faktoreen berrikuspena eskatzen du: espezializazioa, esperientzia, ohiartzuna, nekagarritasuna, lanaldia eta dedikazioa.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da eta lanpostuen arteko oreka hausten du.
OOS	20-02- 2023/06-03- 2023	3155/3905	Sei faktoreen berrikuspena eskatzen du: espezializazioa, esperientzia, ohiartzuna, nekagarritasuna, lanaldia eta dedikazioa.	Ez da onartzen. Bere garaian ezetsi ziren alegazioetan oinarritzen da eta lanpostuen arteko oreka hausten du.



Lanpostuen balorazioaren beraztertze errekurtsok

Langilea	Errekurtso data	Erregistro zenbakia	Edukiaren laburpena	Erantzun proposamena
GAA	08-03-2023	4065	Arkitekto-tekniko lanpostuan (6.201 kodea) bi zuzenketa eskatzen ditu: 3 HE jartzea eta lanpostua "Hirigintza eta obrak" sailean kokatzea.	Onartzen da.

ERANSKINA

ERREKURTSOEN ONDORIOZKO KOSTU EKONOMIKO GEHIGARRIA

Lanpostua	Ordainsari igoera urtean	Gizarte segurantzura urtean	Guztira urtean	Guztira atzeeraginez
Ofizial ordea	729.58	240	969,58	2.908,74
Txofe-pertsonal balioaniztuna (2)	1.482.17*2= 2.964,34	978,23	2.899,80	8.699,41
Pertsonal balioaniztuna (10)	1.104.25*10= 11.042,25	3.643,94	14.686,19	44.085,17
GUZTIRA				55.693,32

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkakoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui bere eta Aitana Amondarain Esquisabel zinegotziaren izenean, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol eta Xabier Martinez Quinquilla.



Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du 2022ko abenduaren 15ean Udalbatzak hartutako akordioaren aurka aurkeztu diren berraztertzeko errekursoak ebaztea, hauei buruzkoa da akordioa: behin betikoz onartzea udaleko lanpostuen katalogoa eta balorazioa, sailen organigrama berria eta 2023ko lanpostuen zerrenda.

5. ONARTZEA TXISTU IRAKASLE ETA TXISTULARI BANDAKO ZUZENDARI LANPOSTUAREN LANALDIA HANDITZEA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023eko maiatzaren 17ko irizpena

AURREKARIAK

LEHENA.- Azken urteotan, Tolosako Txistularien Bandako Zuzendariak idazki ugari aurkeztu ditu udal honen Erregistro Orokorrean, besteak beste, dituen eginkizunak betetzera bideratutako lanaldiaren ehunekoak luzatzeko eskatuz. Gogoratu beharra dago aipatutako langileak bere funtzioak betetzen dituela lanaldi partzialeko erregimenean, %68koan, bi eginkizun betetzen. Alde batetik, lanaldiaren % 52a Tolosako Musika Eskolako txistu-irakasle lanak egiteko erabiltzen du, eta bestetik, % 16a, txistulari eta Txistulari Bandako zuzendari gisa. Azken kasu honi dagokionez, I.G.A. J.k gainontzeko txistulariek duten lanaldi berdina duela argitu beharra dago, zera, Txistularien Bandako Zuzendaritzako funtzioengatik ez duela inolako lanaldi-gehigarrik.

Tolosako Txistularien Bandako Zuzendariak, bestaldetik, Hernaniko Musika Eskolan ematen ditu bere zerbitzuak, lanaldiaren %40rekin.

Aurkeztutako idazki guztietatik bi aukeratu dira, lanaldia luzatzeko eskaerari buruzko azalpenetan zehaztaperen handienak jasotzen dituztenak, hain zuzen: 2022ko maiatzaren 26an aurkeztutako idazkia (Sarrera Erregistroa 6171 zk.a duena) eta 2022ko urriaren 7an aurkeztutakoa (Sarrera Erregistroa 10.590 zk.a duena).

Halaber, Giza Baliabideetako Departamentuko arduradunak egindako txostenak aztertu dira, azkena 2022ko irailaren 29an egindakoa. Beraz, I.G.A. Jk. aurkeztutako azken idazkia ez da informatu. Azkeneko txostenean, beste gai batzuen artean, lanaldia %12an luzatzea proposatzen du.

Kultura, Jaiak eta Gazteria Departamentuko arduradunak informatu du ere Txistularien Bandako Zuzendariak luzaturiko eskaera, 2023ko martxoaren 25ean egindako txostenean.

BIGARRENA.- 2022ko maiatzaren 26an eta 2022ko urriaren 7an aurkezturiko idazkietan, Tolosako Txistularien Bandako Zuzendariak, bere lanaldia % 32an



luzatzea eskatzen du, guztira txistu Bandako zuzendari eta txistulari gisa % 48ko lanaldia izateko. Beraz, Txistularia eta Bandako Zuzendaria izateagatik bere urteko lanaldia 509,44 ordukoa izatea. Zuzendari gisa legezkiokoen funtzio eta zereginak honela justifikatu ditu 2022ko urriaren 7an aurkezturiko idazkian:

1-Emanaldien programazioa egin, irailean, urtarrilean eta apirilean: emanaldietarako erreperitorioa pentsatu eta topatu (edo beste banda batzuei eskatuta lortu), kontzertuetarako gonbidatuak topatu eta harremanak. Urtean 15 ordu.

Urtean zehar egiten diren emanaldietarako, aurrez pentsatu behar dira gauzak. Urtean hiru alditan, urte garai horretarako programazioa pentsatu behar da. Kontzertuetarako erreperitorioa erabaki, partiturak topatu gure artxiboan edo beste banda batzuen artxibora joaz. Horretarako, batzuetan Donostia edo Bilboko txistulari bandaren artxibora joan behar izaten da, bertan partiturak topatzeko.

Erreperitorioa erabaki eta partiturak lortu ondoren, musikari gonbidatuak egongo badira, hauekin hitzegin, partiturak eman, obraren nondik norakoak berarekin landu, eta kasu batzuetan zuzendariak bakarrik entseguren bat egin behar izaten du musikari gonbidatuarekin.

Irailean, erregeak arte dauden emanaldietarako aurreikuspena (Santa zezilia eguneko kontzertua, inmakulada eguneko kontzertua, olentzero-errege kabalgata eta errege eguneko kontzertua), 5 ordu. Urtarrilean, apirila arte dauden emanaldietarako aurreikuspena (Iurreamendi egoitzako kontzertua otsailean, Iñauteri aurreko pregoi kontzertua, Iñauteriak eta Uzturre egoitzako kontzertua martxoan), 5 ordu. Apirilean, iraila arte dauden emanaldietarako aurreikuspena (San Juanak eta alardea edo kontzertu bereziren bat, baldin badago), 5 ordu.

Guztira 15 ordu.

2-Entseguetarako gela prestatu (atrilak, aulkiak, tresnak...). Jotzaile guztien karpetak egoki antolatu, eta atzera jaso eta egoki ordenatuta utzi. Urtean 40 ordu.

Txistulari bandak entseguetarako erabiltzen duen gela, musika eskolan klaseak emateko erabiltzen den gela bat da. Txistua eta beste ikasgairen bat ere ematen da bertan.

Ostegunero, entseguaren aurretik, bandako partaide guztientzat aulkiak eta atrilak bere lekuan jartzen ditut, eta behar diren tresnak ere bai (atabala, bonbetea, batzuetan perkusio gelatik marinba ere ekarri behar izaten da). Bakoitzari bere karpeta atrilean jarri, egun horretan landuko den erreperitorioarekin.

Entsegua 22:00etan bukatzen dugu, eta azken momenturarte jotzen aritzen garenez, gela bere horretan uzten dugu, eta hurrengo goizean, tresnak bere lekuan utzi, eta atrilak eta aulkiak jasotzen ditut, berriro gela klaseak emateko moduan uzteko. Partaide bakoitzaren karpeta dagokionez, bezperako entseguan hartutako oharren arabera, bakoitzari egin beharreko txukunketak egin (partituran akatsak badaude, kopiak beste modu batean egin behar badira, zerbait falta bada...).

Kontutan izan dezazuen, lan hauek egiteko, musika bandan bi atrilero daude, lan hori egiteaz arduratzen direnak. Ostegunetan entsegu aurretik prestatzeko 15-20 minutu



eta ostiraletan berriro dena jaso eta txukuntzeko 40-45 minutu izaten dira. Beraz, astean ordubete inguru. 40 asteko lan urtean,

Guztira 40 ordu.

3-Kontzertu bakoitzerako, aurreko puntuko antolaketa bera. Kontzertu bakoitzerako bi ordu. Urtean zazpi kontzertu direnez, urtean 14 ordu.

Kontzertuak dauzkagun egunetan, aurreko puntuko antolaketa beretsua izaten da. Kontzertuaren aurretik, musika eskolatik hartu beharreko tresnak, karpetak eta behar izanez gero atrilak hartzen ditut, eta kontzertu lekura eraman. Kontzertua amaitzen denean, berriro musika eskolara bueltan eraman, eta han dena jasota utzi. Kontzertua amaitzen denean, erabilitako errepertorioari dagozkion partiturak arxivatu egiten ditut, behar izanez gero zuzenketak, aldaketak edo oharrek apuntatuaz.

Guztira 14 ordu.

4-Artxiboa. Gure artxiboa lan handiaren beharrean dago. Honek alderdi ezberdinak ditu:

-Antolaketa eta katalogazioa. Urtean 80 ordu.

-Eraberriketa/digitalizazioa: partituren edizioa (ordenagailuz idatzi). Gaur egunerako eta etorkizunerako modu erosoan erabiltzeko moduan jartzea. Urtean 100 ordu.

*Gure artxiboan daukagun material guztia sailkatu eta antolatu gabe dago, aurkibide bat ere ez daukagu. Honek, bandako programazioa egiteko lana asko zailtzen du. Hori dela eta, daukagun material guztiaren **antolaketa eta katalogazioan** sekulako lana dago. Datu base bat prestatu zigun Guadik (artxiboko langilea), antolaketa lan hori egin ahala, informazioa bertan sartu eta erabilgarriagoa izateko. Horretarako, partitura guztiak banan bana sailkatu behar dira (askotan abesti berdinen bertsio ezberdin asko daude, eta kasu horietan bertsio guztiak gorde edo erabilgarriena zein izan daitekeen aztertu behar da), eta ondoren artxiboan abestiak modu azkar eta erraz batean topatzeko moduan antolatu eta gorde behar dira.*

*Horretarako astean 2 ordu aurreikusi ditut, 40 asteko lan urtean **80 ordu** liriatekeelarik.*

Gaur egun, gero eta gehiago, eskuz idatziriko partiturak baino, ordenagailuz idatzirikoak erabiltzen dira, eta hori dela eta, gure artxiboaren pixkanakako **digitalizazioa garrantzitsua da. Horrek zera suposatzen du, partitura guztiak, pixkanaka ordenagailuz idazten joatea. Horrek lan handia suposatzen du, eta astean 2,5 ordu proposatu ditut horretarako. Pentsa astean 2,5 ordu ordurekin, astean abesti bat digitalizatu daitekeela gehienez, gutxi gora behera. 40 asteko lan urte batean, 40 abesti liriateke urtean. Gure artxiboan, ez naiz kontaktzen jarri, baina zenbat partitura ote daude...1000 agian? Horrek 25 urterako lana suposatuko luke. Astean 2,5 ordurekin, 40 asteko lan urtean **100 ordu** liriateke.**

Antolaketa, katalogazioa eta digitalizazioa:

Guztira 180 ordu.



Interesgarria litzateke, igande bakoitzean jotzen den zortzikoa, hurrengo astean digitalizatzea, eta kontzertuetako materialarekin gauza bera, kontzertu ondorengo asteetan, erabilitako partiturak digitalizatzea. Zalantza bat argitze aldera, igandero jotzen dugun dianan, zortziko ezberdin bat jotzen dugu (edo ia beti ezberdina izaten saiatzen gara).

Bileraren batean, nire lanaldia baloratzen, igandero abesti berdina jotzen dugula eta horrek ez duela lanik suposatzen entzun izan dut udalaren partetik, eta hori argitu nahiko nuke, ez dela horrela inondik inora.

5-Kontzertuetarako esku programak prestatu, kontzertuetarako beharren komunikazioa, antolaketa eta koordinazioa (Xabier Cañas eta Jokin Ansorenarekin). Kontzertu bakoitzeko bi ordu. Urtean zazpi kontzertu direnez, urtean 14 ordu.

Kontzertuak dauzkagunean, batzuetan eskuprogramak prestatu behar izaten dira (editatu, inprimatu, kopiak egin, orriak doblatuta prestatu...), eta kontzerturako ditugun beharrak komunikatu eta koordinatu behar izaten dira Musika bandarekin, Xabier Cañasekin edo Jokin Ansorenarekin. Antolaketa eta koordinazio lanak ere beti izaten dira, batarekin hitzegin, besteari deitu, kontzertua emango den lekua ikusi ea nahikoa leku izango den jakiteko...

Guztira 14 ordu.

6-Materialaren kudeaketa (tresnak, arropak, erosketak, konponketak...). Urtean 16 ordu.

Txistulari bandak behar duen materialaren urteroko erosketak daude alde batetik.

Horretarako, bandak zer gauza behar dituen hausnarketa egin, taldekideekin erabaki, eta hurrengo urteko aurrekontua aurkeztu behar da. Ondoren, erosketa bakoitza egin aurretik aurrekontuak eskatu, balidazioa egin ote den ziurtatu, eta hala denean, eskaera egiten da.

Arropen kasuan, normalean Tolosan bertan erosten ditugu. Musika tresnen erosketa eta konponketen kasuan, normalean hiru lekutara jotzen dugu, Tolosako Joxe Manuel Agirre, Ibarako Tarukutraku, eta Berriozarreko Ezpela.

Azken honen kasuan (Berriozar), urtean hiru aldiz gutxienez joaten naiz. Behin, erosi beharreko tresnak probatu eta aukeraketa egitera (4 ordu). Beste behin konpontzeko tresnak eramatera (3 ordu), eta beste behin jasotzera (3 ordu). Horretan bakarrik 10 ordu erabiliko lirateke, urte guttirako beste 6 ordu geratzen direlarik.

Guztira 16 ordu.

7-Bi astetik behin, kultura departamentuko bilera, eta departamentu buruarekin

koordinazioa, asteazken goizetan. Urtean 50 ordu.



Bi astetik, kultura departamentuko bilera izaten dugu, 10:00-11:30 bitartean. Nik departamentu buruarekin bestelako gaiak hitzegiteko, astean 15 minutu gordetzen ditut, bi astean ordu erdi litzateke. Beraz, guztira bi astetik behin bi ordu lirateke. 40 asteko lan urtean, 40 ordu lirateke.

Bilera hauetaz gain, errege kabalgata, iñauteriak, eta San Juan jaien antolaketarako izaten ditugun aparteko bilerak ere kontutan hartu behar dira. Bilera horietarako 10 ordu aurreikusi ditut.

Guztira 50 ordu.

8-Bulegoko lana: udalarekin edota bestelako erakunde eta txistulari bandekin komunikazioa, posta elektronikoari arreta. Udalari zuzendutako edo udalaren eskariz prestatu beharreko eskaerak eta txostenak. Nire ardurapekoak diren bandako partaideei udalak helarazi behar dizkien agiriak udalean jaso, txistulariei eman, sinadurak jaso, bueltan eraman etab. Urtean 60 ordu.

Aipatu ditudan bulegoko lan hauetarako, astean ordu terdi erabiliaz, urtean 60 ordu lirateke. Posta elektronikoari egunean 20 minutu eskeinuta, gaur egun astean hiru lanegun

*jarrita ditudala kontutan izanik (nahiz eta benetan egunero aritzen naizen zuzendaritza lanetan), horretan bakarrik dagoeneko astean ordubete erabiliko litzateke. beste ordu erdia, aipatzen ditudan beste zereginetarako lirateke. 40 asteko lan urte batean, **Guztira 60 ordu.***

Horren ondorioz, Zuzendariaren proposamenean jasotako zeregin hauek urteko 389 orduen gehikuntza dakarte. Halaber, 2022ko maiatzaren 26an aurkezturiko idazkian, honako hau adierazi zuen: *Txistulari bandako zuzendariaren lanaldia %32 batean handitzea eskatzen dut. %32ko lanaldiak 509,44 ordu ditu. Horietatik 378,24 ordu presentzialak lirateke. Orduen banaketa hau, Udalhitzek zehaztutakoaren arabera egin da. Ordu presentzialak, goian emandako azalpenekin justifikatzen dira.*

HIRUGARRENA.- Giza Baliabideetako Departamentuko Arduradunak, 2022ko irailaren 29an egindako txostenean, honako hauek proposatu zituen:

Lehena.- *Ion Garmendia Anfurrutia Tolosako udalean betetzen ari den "Txistulari bandako zuzendaria eta txistu irakasle" lanpostua eta Bilbao Musika Erakunde Autonomoan egiten dituen bi jarduera publikoak bateragarriak izan daitezkeela aitortzea, beti ere Tolosako udaleko lan jardunari ez badio eragiten (lanaldia, ordutegiak etab..).*

Bigarrena.- *Txistulari bandako zuzendariaren lanaldia % 12an handitzea, txistulari Bandako zuzendari bezala % 28ko lanaldia izatea, beti ere baldintzatua lehen puntuan ezarritako baldintzak betetzen badira.*



Hirugarrena.- *Txistulari Bandako kideen lan egutegia eta baldintzak finkatu eta onartzea, txosten honekin batera doan proposamena abiapuntutat hartuta.*

Laugarrena.- *Akordio honek ezin ditu atzeraeragin ondorioak eduki, izan ere akordioa hartzen den momentutik aurrera gizarte segurantzian da onartzen den aldaketa egon behar delako.*

LAUGARRENA.- Kultura, Jaiak eta Gazteriako Departamentuko arduradunak, bere aldetik, informatu du I.G.A. Jk. egindako eskaera. Txosten honetan, gai honen aurrekariak aipatzeaz gain, Tolosako Txistularien Bandaren garrantzia azpimarratu du, eta arrazoitu du Bandako Zuzendariak lanaldiaren %100a behar duela, arduradun honen aburuz. Bestaldetik, Txistulari Bandako kideek eta bereziki Zuzendariak behar dituzten ordu ez presentzialei buruzko aldeko txostena eman du, hobekuntza profesionalaren beharrean oinarrituz, eta euskal administrazio publikoetako musikako beste profesional batzuen ordutegi-modalitate horri buruzko informazioa eskainiz (Donostiako eta Bilboko udal txistularien bandak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa...).

BOSGARRENA.- Tolosako udalbatza osoak, 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, besteak beste, udal honetako lanpostuen katalogoa, lanpostuen balorazioa, sail ezberdinen organigrama eta lanpostuen zerranda onartu zituen behin betiko izaeraz.

Lanpostuen Katalogoa kontsultatu ondoren, hona hemen lanpostuari esleitutako funtzio eta zereginak:

BANDA-ZUZENDARIA:

1. Udal Txistulari Banda prestatu eta zuzentzea egiten diren entsegu, ekitaldi eta emanaldietan.
2. Udal Txistulari Bandaren plangintza eta programazioa egitea.
3. Udal Txistulari Bandaren errepertorioa lortu, prestatu eta egokitzea, eta partiturak hautatu eta moldatzea.
4. Udal Txistulari bandan lehenengo txistu lanak egitea.
5. Udal Txistulari Bandaren artxiboa antolatu, mantendu, eguneratu, aberastu eta digitalizatzea.
6. Harremanak bultzatzea Musika Eskolako gainerako irakasleekin eta beste eskola batzuetako irakasleekin, bai eta beste banda batzuekin ere, askotariko ekitaldiak egiteko, partiturak elkarri trukatzeko, etab.
7. Udal Txistulari Bandak parte hartzen duen ekitaldiak jakinarazi eta zabaltzea.

UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:

8. Txistulari bandarekin kontratatutako zerbitzuei lotutako fakturen kobrantza balidatzeko irizpena ematea.



9. Udal Txistulari Bandak parte hartzen duen ekitaldi guztietarako behar den materiala garraiatu, bildu eta zaintzea.
10. Udal Txistulari Bandaren tresnak behar bezala erabiltzen dituztela begiratzea eta haiek zaintzea.
11. Ekitaldi eta bileretan ordezkari gisa parte hartzea.

IRAKASLEA:

12. Jardueren eta edukien diseinu pedagogikoari eta plangintzari buruzko lanak egitea; irakasgaien prestaketa, azterketa pertsonala eta materialaren antolaketa egitea.
13. Ikasleen sentsibilizazio, ezagutza eta gaitasun musikalak sustatzen dituzten programak eta jarduerak ezartzea.
14. Bertaratzearen gaineko jarraipena eta eguneko eta aldizkako ebaluazioa egitea, ikasleen ebaluazioa eta azterketak egitea, lanbide-ikasketetara bideratzeko informazioa eta orientabideak ematea aurreratuen dauden ikasleei, eta horren berri ematea gurasoei edo tutoreei.
15. Tresna bakoitzaren teknikak eta ikasteko teknikak irakastea.
16. Musika Eskolak, barnean edo kanpoan, antolatzen dituen jardueretan parte hartzea.
17. Gainerako irakasleekin elkarlanean aritzea askotariko zerbitzuak garatzeko: kontzertuak, ikasgelaz kanpoko jarduerak, beste ikastegiekiko trukeak, etab.
18. Sarrera-probak eta ikasle taldeak diseinatzeari buruzko askotariko lanak egitea, eta ikasle nabarmenak lanbide-ikasketetarako prestatu eta aurkeztea.
19. Ikastegiaren bileretan parte hartzea (klaustroak, bilerak guraso edo tutoreekin, etab.), eta behar den informazioa ematea ikasturtearen bilakaera ebaluatzeko.
20. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.
21. Kontzertuak prestatzen eta antolatzen parte hartzea.

TXISTULARIA:

22. Udal Txistulari Bandaren entseguetan jotzea.
23. Igande eta jaiegunetako diana jotzea.
24. Auzoetako jaietan diana jotzea, eskatuz gero.
25. Kontzertuetan jotzea, urteko egutegiaren arabera.
26. Prozesioetan jotzea, urteko egutegiaren araberrako.
27. Udalak eskatutako protokoloetan jotzea.
28. Udalarekin hitzartutako gainerako ekitaldietan jotzea.
29. Askotariko udal-eragileek edo beste herri batzuetakoek antolatzen dituzten ekitaldietan jotzea, hori eskatuz gero.
30. Tolosako txistularien alardea antolatzen laguntzea eta bertan jotzea.
31. Txistua musika-tresna gisa ezagutaraztea eta sustatzea, ekitaldi horiek antolatuta edo beste batzuk antolatzen parte hartuta: kultura-jarduerak, hezkuntza-eremua, azokak, jaiak, etab.
32. Musika-talde edo talde artistikoekin elkarlanean aritzearen alde egitea: dultzaineroak, musika-banda, dantzariak, erraldoiak, etab.



33. Beste udalerrri batzuetako txistulari-taldeekin harremanak bultzatzea eta izatea.
34. Instrumentuaren interpretazio-maila egokia mantentzea, ikasketa pertsonalen bidez.

EGINKIZUN KOMUNAK:

35. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
36. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
37. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
38. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
39. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
40. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldeztatik horretarako jarraibideak jasota.

Aldiz, txistularien funtzio eta zereginak hauek dira, aipatu den Katalogoan ezarritakoaren arabera:

TXISTULARIA:

1. Udal Txistulari Bandaren entseguetan jotzea.
2. Igande eta jaiegunetako diana jotzea.
3. Auzoetako jaietan diana jotzea, eskatuz gero.
4. Kontzertuetan jotzea, urteko egutegiaren arabera.
5. Prozesioetan jotzea, urteko egutegiaren araberrako.
6. Udalak eskatutako protokoloetan jotzea.
7. Udalarekin hitzartutako gainerako ekitaldietan jotzea.
8. Askotariko udal-eragileek edo beste herri batzuetakoek antolatzen dituzten ekitaldietan jotzea, hori eskatuz gero.
9. Tolosako txistularien alardea antolatzen laguntzea eta bertan jotzea.
10. Txistua musika-tresna gisa ezagutaraztea eta sustatzea, ekitaldi horiek antolatuta edo beste batzuk antolatzen parte hartuta: kultura-jarduerak, hezkuntza-eremua, azokak, jaiak, etab.
11. Musika-talde edo talde artistikoekin elkarlanean aritzearen alde egitea: dultzaineroak, musika-banda, dantzariak, erraldoiak, etab.
12. Beste udalerrri batzuetako txistulari-taldeekin harremanak bultzatzea eta izatea.
13. Instrumentuaren interpretazio-maila egokia mantentzea, ikasketa pertsonalen bidez.

EGINKIZUN KOMUNAK:

14. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
15. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.



16. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
17. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
18. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
19. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldezturik horretarako jarraibideak jasota.

Bistan dago, Tolosako Txistularien Bandako Zuzendariak gainontzeko txistulariez gain, bestelako funtzio eta eginkizunak bete behar dituela, hain zuzen, Lanpostuen Katalogoaren 1tik 11ra deskribatzen direnak, egindako eskaeretan adierazten direnak. Eginkizun hauek bat datoz Kultura, Jaiak eta Gazteriako Departamentuko Arduradunak deskribatutakoekin.

Halaber, Lanpostuen Balorazioa aztertu ondoren, Tolosako Txistularien Bandako Zuzendariaren Lanpostuak ez du inolako bateraezintasuneko araubide berezirik.

Azpimarratu behar da Lanpostuen Katalogoaren eta Balorazioaren behin betiko onespena 2022ko abenduaren 15ean ebatzi zela, eta hartutako ebazpenak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirela, 2023ko otsailaren zazpian, 25. Aldizkarian. Aldiz, Giza Baliabideetako Departamentuko Arduradunaren azkeneko txostena 2022ko irailaren 26koa da.

AZTERKETA JURIDIKOA

LEHENA.- Eskaera aztertu aurretik, bi musika eskolatan Txistularien Zuzendariak betetzen dituen lanpostuen arteko bateragarritasuna aztertu behar da, gai honek lehentasuna duelako.

Giza Baliabideko Departamentuko Arduradunak honako hau idatzi zuen 2022ko irailean:

“Bateraezintasun arloan, Udal enplegatu publiko guztiei aplikagarri den legedia da abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta berarekin erlazionatuak dauden lege xedapenak dira. Bertan, Ion Garmendia Anfurrutiak bere lanaldia bi erakunde publikoetan garatzen duenez, legeak bi jarduera publiko egin daitezkeen aztertu beharko da eta horrela bada, ze baldintza bete beharko lituzke hau bete ahal izateko.

*Legeak, zioen azalpenean oso argi hitz egiten esaten duenean: “La nueva regulación de las incompatibilidades contenida en esta Ley parte, como principio fundamental, de la dedicación del personal al servicio de las Administraciones Públicas a **un solo puesto de trabajo**, sin más excepciones que las que demande*



el propio servicio público, respetando el ejercicio de las actividades privadas que no puedan impedir o menoscabar el estricto cumplimiento de sus deberes o comprometer su imparcialidad o independencia.”

*Legearen 3 artikulua xedatzen du: “El personal comprendido en el ámbito de aplicación de esta Ley sólo podrá desempeñar un segundo puesto de trabajo o actividad en el sector público en los supuestos previstos en la misma para las funciones **docente** y sanitaria. (artikulu honek kasu gehiago jasotzen ditu, gai honekin loturarik ez dutenak)*

.../...

Para el ejercicio de la segunda actividad será indispensable la previa y expresa autorización de compatibilidad, que no supondrá modificación de la jornada de trabajo y horario de los dos puestos y que se condiciona a su estricto cumplimiento en ambos.”

Ondoren, arlo pribatuan zein publikoan bateraezintasunari buruzko xedapen amankomunei arautzen dira, zehazki bere 16 artikuluan honakoa xedatzen du:

1. No podrá autorizarse o reconocerse compatibilidad al personal funcionario, al personal eventual y al personal laboral cuando las retribuciones complementarias que tengan derecho a percibir del apartado b) del artículo 24 del presente Estatuto incluyan el factor de incompatibilidad al retribuido por arancel y al personal directivo, incluido el sujeto a la relación laboral de carácter especial de alta dirección

.../...

*4. Asimismo, por excepción y sin perjuicio de las limitaciones establecidas en los artículos 1º.3, 11, 12 y 13 de la presente Ley, podrá reconocerse compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de **complementos específicos**, o concepto equiparable, cuya **cuantía no supere el 30 por 100 de su retribución básica**, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad”*

Txostenak jarraitzen du Auzitegi Goreneko bi sententzia aipatuz. Lehenak, 2001eko ekainaren 12koak (legearen intereseko kasazio-helegiteak), jarduera pribatu eta publikoen arteko bateraezintasunari buruzko jurisprudentzia xedatzen du. Horretaz gain, Zazpigarren oinarri juridikoan honako hau azaltzen du Auzitegi gorenak: “...la regla general en el régimen establecido por la [Ley 53/84](#) es, como se indica por la Abogacía del Estado, la incompatibilidad del ejercicio de las actividades públicas con un segundo puesto de trabajo en el sector público así como con el ejercicio de las actividades privadas, siendo necesario para realizar éstas solicitar previamente la correspondiente autorización. Hasta tanto no se obtenga dicha autorización no se



puede ejercitar actividades privadas pues su ejercicio, sin cumplimentar ese requisito previo, supone, en sí mismo, una infracción de las normas en materia de incompatibilidades.

Interesa asimismo indicar que el [artículo 19](#) de la [Ley 53/84](#) determina las actividades que quedan exceptuadas de dicha Ley, en relación con las cuales el artículo 17 del [Real Decreto 958/85](#) establece que podrán realizarse sin necesidad de autorización o reconocimiento de compatibilidad únicamente cuando concurren los requisitos establecidos para cada caso concreto, tanto en el expresado artículo 19 como en las disposiciones que determinan los deberes generales o especiales del personal al servicio de la Administración y en el supuesto enjuiciado por la Sentencia recurrida no se está ante alguna de las actividades a las que se refiere el expresado artículo 19.

Gai honi dagokionez, Auzitegi Gorenak, 2019ko abenduaren 5ean emandako 1684/2019 Sententziak, gai honi buruzko dotrina zehaztu zuen (jarduera publiko eta pribatuen arteko bateraezintasuna), bi ñabardura sartuz bere HAMAIKAGARREN. Oinarri Juridikoan: *UNDÉCIMO.- La respuesta a la cuestión casacional. A la vista de lo establecido en la Ley 53/1984 la percepción por parte de los empleados públicos de complementos específicos, o concepto equiparable, que incluyan expresamente entre los componentes que remuneran, el factor de incompatibilidad impide, en todo caso y con independencia de la cuantía de aquellas retribuciones complementarias, reconocerles la compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas, Puede otorgarse el derecho a la compatibilidad cuando la cuantía de las retribuciones complementarias no supere el 30 por 100 de las retribuciones básicas, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad y de superarse debe estarse a lo establecido en el Real Decreto Ley 20/2012 de 13 de julio y el Acuerdo del Consejo de Ministros de 16 de diciembre de 2011 en el ámbito de la Administración General del Estado y lo que puedan establecer leyes de función pública autonómica.*

Kasu honetan bi ezberdintasun nabarmen daude:

1. Tolosako Txistularien Bandako Zuzendaria ez da funtzionarioa, lan-itunpeko pertsonala baizik. Bere ordainsarien estruktura ez da funtzionario publikoena, alegia, oinarritzko soldata, destino-osagarria eta berariazko osagarria (antzinatasuna at utzita). Lan-itunpeko pertsonalak ez du berariazko osagarririk, eta, aurretik esan den moduan, lanpostuaren balorazioan ez zaio inolako ezaugarri berezirik esleitu, bateraezintasunari dagokiona.
2. Kasu honetan, I.G.A. Jk. garatzen ditu bere bi jarduerak sektore publikoan, bi Musika Eskolatan, udalen jabetzakoak. Kasu honetan, 53/1984 Legearen 4. artikulura jo beharko da:

1. Podrá autorizarse la compatibilidad, cumplidas las restantes exigencias de esta ley orgánica, para el desempeño de un puesto de trabajo en la esfera docente como



Profesor universitario asociado en régimen de dedicación no superior a la de tiempo parcial.

2. Al personal docente e investigador de la Universidad podrá autorizarse, cumplidas las restantes exigencias de esta ley, la compatibilidad para el desempeño de un segundo puesto de trabajo en el sector público sanitario o de carácter exclusivamente investigador en centros de investigación del sector público, incluyendo el ejercicio de funciones de dirección científica dentro de un centro o estructura de investigación, dentro del área de especialidad de su departamento universitario, y siempre que los dos puestos vengan reglamentariamente autorizados como de prestación a tiempo parcial.

Recíprocamente, a quienes desempeñen uno de los definidos como segundo puesto en el párrafo anterior, podrá autorizarse la compatibilidad para desempeñar uno de los puestos docentes universitarios a que se hace referencia.

Asimismo a los Profesores titulares de Escuelas Universitarias de Enfermería podrá autorizarse la compatibilidad para el desempeño de un segundo puesto de trabajo en el sector sanitario en los términos y condiciones indicados en los párrafos anteriores.

Igualmente a los Catedráticos y Profesores de Música que presten servicio en los Conservatorios Superiores de Música y en los Conservatorios Profesionales de Música, podrá autorizarse la compatibilidad para el desempeño de un segundo puesto de trabajo en el sector público cultural en los términos y condiciones indicados en los párrafos anteriores.

3. La dedicación del profesorado universitario será en todo caso compatible con la realización de los trabajos a que se refiere el artículo 11 de la Ley de Reforma Universitaria, en los términos previstos en la misma.

Halaber, zazpigarren artikulua honako hau xedatzen du:

*1. Será requisito necesario para autorizar la compatibilidad de actividades públicas el que **la cantidad total percibida por ambos puestos o actividades** no supere la remuneración prevista en los Presupuestos Generales del Estado para el cargo de Director General, ni supere la correspondiente al principal, estimada en régimen de dedicación ordinaria, incrementada en:*

- Un 30 por 100, para los funcionarios del grupo A o personal de nivel equivalente.*
- **Un 35 por 100, para los funcionarios del grupo B o personal de nivel equivalente.***
- Un 40 por 100, para los funcionarios del grupo C o personal de nivel equivalente.*
- Un 45 por 100, para los funcionarios del grupo D o personal equivalente.*
- Un 50 por 100, para los funcionarios del grupo E o personal equivalente.*



La superación de estos límites, en cómputo anual, requiere en cada caso acuerdo expreso del Gobierno, órgano competente de las Comunidades Autónomas o Pleno de las Corporaciones Locales en base a razones de especial interés para el servicio.

2. Los servicios prestados en el segundo puesto o actividad no se computarán a efectos de trienios ni de derechos pasivos, pudiendo suspenderse la cotización a este último efecto. Las pagas extraordinarias, así como las prestaciones de carácter familiar, sólo podrán percibirse por uno de los puestos, cualquiera que sea su naturaleza.

Beraz, hauek izango liriteke sektore publikoko 2. Jardueraren mugak:

- Bigarren lanpostuaren ordainsaria ez dela lanpostu nagusiarena baino % 35 handiagoa izan behar. Muga hori gainditzeko, udalbatzak erabaki bat hartu beharko luke, behar bezala arrazoituta, zerbitzuaren interes bereziko arrazoiengatik.
- Bigarren lanpostuan emandako zerbitzuak ez dira kontuan hartuko hirurtekoetarako eta eskubide pasiboetarako. Halaber, bi lanpostuetako batengatik bakarrik jaso ahal izango dira aparteko ordainsariak edota familia izaerako prestazioak.

Jarduera pribatuei dagokienez, 53/84 Legearen 13. Artikuluak honako hau xedatzen du: *No podrá reconocerse compatibilidad alguna para actividades privadas a quienes se les hubiere autorizado la compatibilidad para un segundo puesto o actividad públicos, siempre que la suma de jornadas de ambos sea igual o superior a la máxima en las Administraciones Públicas.*

Gai honi dagokionez, gogoratu behar da Giza Baliabideetako Teknikariak egindako txostena: *Amaitzeko, gogorarazten da urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 95.2 n) artikuluan bateraezintasun arauak ez betetzea falta larria bezala kontsideratzen duela eta bateragarritasun eskaera egin beharko duela.*

BIGARRENA.- Txosten honen aurrekarietan azaldu denaren arabera, Giza Baliabideetako Departamentuko arduradunak bere azken txostena egin zuenetik, honako datu berri hauek daude:

- Txistularien Bandako Zuzendariak 2022ko urriaren 7an aurkeztutako idazki berria, informazio gehigarri eskainiz funtzio horri zegozkion eginkizunei buruzkoa.
- Tolosako udaleko lanpostuen katalogoa eta balorazioa, udal organigrama, eta lanpostuen zerrenda berriaren onartu zituen udalbatza osoko erabakiak,



2022ko abenduaren 15ean emandakoak. Dokumentu hauetan, batez ere Lanpostuen Katalogoan, Txistularien Zuzendaritza-lanei dagozkien funtzio eta zereginak zehaztu dira. Halaber, Lanpostuen Balorazioan ez da inolako bateraezintasun berezirik ezarri.

- Kultura, Jaiak eta Gazteriako Departamentuko Arduradunaren txostena.
- Txistularien Bandako Zuzendariak 2023ko apirilaren 19an egindako txostena, ordu ez-presentzialen beharra arrazoituz.

Beraz, Idazkari honen iritziz, onargarria izango litzateke Txistularien Bandako Zuzendariaren urteko lanaldia luzatzea, %100a osatuz.

Ordu ez-presentzialei dagokienez, lehenik eta behin, UDALHITZ hitzarmenaren 14. Artikulua aztertu beharko litzateke. Bertan Udal Kontserbatorioetako eta Musika Eskoletako irakasleen lanaldiaren antolaketa arautzen du, non urteko lanaldia banatzen den honako irizpideen arabera:

14. artikulua.- Udal Kontserbatorioetako eta Musika Eskoletako irakasleen lanaldia Udal Kontserbatorioetako eta Musika Eskoletako irakasleen urteko lanaldia honela banatuko da:

a) 1.122 ordu zentroan bertan egon beharko dute irakasleek, eta Zuzendaritzako karguek eta Zuzendariak ordu gehigarri batzuk izango dituzte.

b) Zentroko Titularra eta Langileen Ordezkariek adostasunera heldu ondoren, aparteko 60 ordu erabili ahal izango dira ikasturteko une zehatzetan: azterketak prestatzeko, matrikulaziorako, jaialdietarako, musikaren egunerako, Olentzerorako, txangoetarako, etab.

c) Zentroan ez egoteko 410 ordu, profesionaltasuna mantentzeko, irakaskuntza lanari datxekion zereginak betetzeko eta zerbitzuaren ordu-koadroen bereizgarritasuna konpentsatzeko

Artikulu honek e) atalak honako hau xedatzen du:

d) Irakasleak ez diren langileak Erakundeko beste langile publikoek daukaten lanaldi berbera izango dute.

Tolosako Txistularien Bandako kideek (Zuzendariak barne), ez dute betetzen irakaskuntza-lanik. Bandako zuzendariaren kasuan, Udalhitzeko 14. artikuluan ezarritako lanaldi-erregimen berezia aplikatuko litzaioke txistu-irakasle funtzioei dagokienez (jardunaldiaren % 52), baina ez Txistulari Bandako zuzendari lanari dagokionez.



UDALHITZ indarrean sartu eta gero, onartu da **8/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 8koa, Lanaldiko gizarte-babeseko eta lan-prekarietatearen aurkako premiazko neurriena**. Arau honek 2/2015 Legegintza Errege Dekretuaren, Langileen Estatutuaren 34. artikulua aldatu zuen, xedapen berria ezarriz: **9. La empresa garantizará el registro diario de jornada, que deberá incluir el horario concreto de inicio y finalización de la jornada de trabajo de cada persona trabajadora, sin perjuicio de la flexibilidad horaria que se establece en este artículo.**

Mediante negociación colectiva o acuerdo de empresa o, en su defecto, decisión del empresario previa consulta con los representantes legales de los trabajadores en la empresa, se organizará y documentará este registro de jornada.

La empresa conservará los registros a que se refiere este precepto durante cuatro años y permanecerán a disposición de las personas trabajadoras, de sus representantes legales y de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.

Halaber, 34. Artikuluaren 2. Atalak, bestek beste, honako hau xedatzen du: **2. Mediante convenio colectivo o, en su defecto, por acuerdo entre la empresa y los representantes de los trabajadores, se podrá establecer la distribución irregular de la jornada a lo largo del año. En defecto de pacto, la empresa podrá distribuir de manera irregular a lo largo del año el diez por ciento de la jornada de trabajo. Dicha distribución deberá respetar en todo caso los periodos mínimos de descanso diario y semanal previstos en la ley y el trabajador deberá conocer con un preaviso mínimo de cinco días el día y la hora de la prestación de trabajo resultante de aquella.**

Kasu honetan, Txistularien Bandako Zuzendaria eta gainontzeko Bandako kideei dagokienez:

- UDALHITZ hitzarmenaren 14.c) artikulua, ordu ez presentzialak arautzen dituen (profesionaltasuna mantentzeko, irakaskuntza lanari datzekion zereginak betetzeko eta zerbitzuaren ordu-koadroen bereizgarritasuna konpentsatzeko) ez da aplikagarria, aipatu artikuluaren d) atalean xedatutakoa kontuan hartuta.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 8koak, Langileen Estatutua onartzen duenak bere 34.2 artikuluan, jardaren banaketa irregularra onartzen du.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, bere 34.9 artikuluan, lanaldiaren erregistroaren nahitaezotasuna xedatzen du, halaber erregistro hori dokumentatzeko betebeharra.

Oinarri hauek kontuan hartzen badira, Idazkari honen iritziz, bideragarria izango litzateke Txistularien Bandako Kideentzako lanaldiaren zati bat modalitate ez presentzialean burutzea, beti ere honako baldintza hauetan oinarrituta:



- Lanaldi mota honen xedea arrazoitu eta zehaztu behar da (hobekuntza profesionala, partituren ikasketa, ikasketa indibidualizatuak....). Kasu honetan, Kultura, Jaiak eta Gazteriako Departamentuko Arduradunak eta Txistularien Bandako Zuzendariak zehaztu dituzte ordu ez-presentzialen xedea eta motibazioa, bai Bandako kideentzat, baita Zuzendariarentzat ere.
- Egikaritzeko baldintzak ere zehaztu behar dira: zenbat ordu, non egin daiteke...Zentzu honetan, Idazkari honen iritziz, posible litzateke irizpide malgua ezartzea, beti ere Zuzendariak jasoko balu ordu horien erregistroa aldiro eta xehetasunez.
- 2/2015 Legegintzako Dekretuak bere 34.9 artikuluan xedatzen duen orduen erregistroa zehaztu behar da: egutegian sartuko al dira ordu horiek? Zuzendariak hileroko egiaztatuko al ditu? Modu guztietan, ordu horien erregistroa nahitaezkoa da, aurretik eman diren arrazoiengatik. Horretarako, 2023ko apirilaren 19an igorritako dokumentuan, Txistularien Bandako Zuzendariak gai honi buruzko azken proposamena egin du.
- **Modu guztietan, Udal honen betebeharra da Tolosako Txistulari Bandako kideei lokal bat ematea, bertaratzen ez diren orduetan hobekuntza profesionala egin ahal izan dezaten.**
- Lan-harremana duten langileak direnez, ordu ez-presentzialak egitea eta erregistratzea arauzko dokumentu batean formalizatu behar dira, lan-itunpeko pertsolanaren ordezkariekin negoziatu ondoren..

HIRUGARRENA.- Lanaldiaren luzapenaren atzeraeraginkortasunari dagokionez, Idazkari honek azpimarratu behar du Txistularien Bandako Zuzendariaren funtzio bereziak agerian jarri zituela Rodriguez Viñals enpresak lanpostuen katalogoa egikaritu zuenean, 2020ko martxoaren 1eko zirriborroan, eta horrela mantendu dira eskuliburu honen behin betiko onespena arte. Halaber, datu hauek alderatu behar dira Giza Baliabideetako Departamentuan dagoen informazioarekin, aurretik aipatu dena kontuan hartuz.

Kasu honetan, Giza Baliabide sailak egiaztatu duenaren arabera, fitxaketak daude baina ezin dira definitu zeintzuk diren txistu irakasle lanpostuari dagozkionak eta zeintzuk txistulari Bandako zuzendariari dagozkionak.

Halaber, Giza Baliabide sailean dagoen informazioaren arabera, kontuan izan behar da lehenik Bilbao Musikako Erakunde Autonomoan % 49ko lanaldian lanean aritu dela eta bestetik, momentu honetan Hernaniko udalean % 40ko lan jardunean dagoela, hortaz % 100ko lanaldia gaindituko luke.

Honen ondorioz, lanaldiaren handitzearen ondorioak akordioa onartzen den unetik aurrera izango lirateke.



LAUGARRENA.- Tolosako Txistularien Bandako Zuzendariaren lanaldia handitzeak eskatzen du udal honetako Lanpostuen Zerrenda aldatzea, aldez aurretik Langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren. Erabakia hartzeko organo eskuduna, Udalbatza osoa da, 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan, lanpostu zerrendaren aldaketa hau ordezkari sindikalekin negoziatu zen, azken aldiz 2022ko abenduaren 13an.

Halaber, akordio horrek aurrekontu-zuzkidura behar du sortzen duen gastuari aurre egiteko.

Txistularien Bandako kideen lanaldiaren antolaketa berezia jasotzen duen araudiaren onspena, udalbatza osoari dagokio, 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu honetan ere ezinbestekoa da ere aurretiazko negoziazioa langileen ordezkariarekin.

Hau guztia kontuan hartuta, Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Egoitz Sorozabal Iturain eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, gehiengoz, honako **irizpen** hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

Lehenik.- “Txistulari Bandako zuzendari eta irakasle” lanpostuaren lanaldia handitzea, % 100ean finkatuaz eta 2023 urteko Lanpostu Zerrendan aldaketa hau txertatzea.

Bigarrenik.- Txistularien Bandako Kideentzako lanaldiaren zati bat modalitate ez presentzian burutzea, beti ere honako baldintza hauetan oinarrituta:

- Lanaldi mota honen xedea arrazoitu eta zehaztu beharko da (hobekuntza profesionala, partituen ikasketa, ikasketa indibidualizatuak....). Kasu honetan, Kultura, Jaiak eta Gazteriako Departamentuko Arduradunak eta Txistularien Bandako Zuzendariak zehaztu beharko dituzte ordu ez-presentzialen xedea eta motibazioa, bai Bandako kideentzat, baita Zuzendariarentzat ere.



- Egikaritzeko baldintzak ere zehaztu beharko dira: zenbat ordu eta non egin daiteke.
- Ordu ez presentzialen erregistroa zehaztu beharko da: egutegian sartuko dira ordu horiek eta Zuzendariak hilerro egiaztatuko beharko ditu. Modu guztietan, ordu horien erregistroa nahitaezkoa da, aurretik eman diren arrazoiengatik.
- Udalak Tolosako Txistulari Bandako kideei lokal edo gela bat emango die, bertaraten ez diren orduetan hobekuntza profesionala egin ahal izan dezaten.
- Lan-harremana duten langileak direnez, ordu ez-presentzialak egitea eta erregistratzea arauzko dokumentu batean formalizatu beharko dira, lan-itunpeko pertsolanaren ordezkariekin negoziatu ondoren.

Hirugarrenik.- Lanaldiaren luzapenaren atzeraeraginkortasunari dagokionez, lanaldiaren handitzearen ondorioak akordioa onartzen den unetik aurrera aplikatzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Andu Martinez de Rituerto Arregui bere eta Aitana Amondarain Esquisabel zinegotziaren izenean, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du txistu irakasle eta txistulari bandako zuzendari lanpostuaren lanaldia handitzea.

6. ONARTZEA 2023 URTEKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDAREN ZUZENKETA BAT, BILKURAKO GAI-ZERRENDAN SARTZEA ONARTU ONDOREN.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023eko maiatzaren 17ko irizpena
AURREKARIAK

Lehena.- Udalbatzak 2023ko martxoaren 2an udalbatzak 2023 urteko Lanpostu zerrenda onartu zuen.



Bigarrena.- Behin akordioa onartu ostean, akats bat somatu da "Txistulari" lanpostuan, hain zuzen ere hizkuntz eskakizunaren derrigortasun datari dagokionean. Zentzu honetan, 1994.01.31 data du ezarria eta hau ez da zuzena.

Honela, lanpostu honi dagokionean, 2018 urteko Lanpostu zerrendatik aurrera, lanpostu honek hirugarren hizkuntz eskakizuna du ezarrita baina derrigortasun datarik gabe, horregatik akatsa zuzentzea proposatzen da.

PROZEDURA

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, bere 82.3 artikuluan xedatzen du:

"3. El Alcalde o Presidente, por razones de urgencia debidamente motivada, podrá incluir en el orden del día, a iniciativa propia o a propuesta de alguno de los portavoces, asuntos que no hayan sido previamente informados por la respectiva Comisión Informativa, pero en este supuesto no podrá adoptarse acuerdo alguno sobre estos asuntos sin que el Pleno ratifique su inclusión en el orden del día."

Hortaz, gaia gai zerrendan sartzea berretsi beharko da puntu hau aztertu aurretik.

Hortaz, honako hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

Lehena.- Berrestea gai hau aztertzea eta bozkatzea, halaber Antolakuntzako Batzorde Informatiboan berri ematea, egingo duen hurrengo bilkuran.

Bigarrena.- "Txistulari" lanpostuaren hizkuntz eskakizunaren derrigortasun data zuzentzea eta data ez finkatzen, Hizkuntz Politikarako sailordetzak dagokion txostena eman bitartean.

Hirugarrena.- Zuzenketa hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de



Rituerto Arregui bere eta Aitana Amondarain Esquisabel zinegotziaren izenean, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez onartu du 2023 urteko udaleko Lanpostu zerrendaren zuzenketa.

Xarles Iturbe Pasaban zinegotzia irten egin da.

7. EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1 ZENBAKIAN KOKATUTAKO ERAIKINA ZUZENEKO EMAKIDA ESLEITZEKO PROZEDURA HUTSIK DEKLARATZEA, TOLOSAKO EKINBIDE ETXEAK ATZERA EGIN DUELAKO.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023eko maiatzaren 17ko irizpena

LEHENA- Udalbatzak, bi mila eta hogeita biko uztailaren hogeita zortzian, Ohiko Osoko Bilkuran, bestek beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

“-Justifikatutzat ematea Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren erabilera pribatiboa Tolosako Ekinbide Etxeari zuzenean emateko beharra eta komenigarritasuna.

- Onartzea espedientea, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren kontzesioa zuzeneko adjudikazio bidez egiteko.

- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren zuzeneko adjudikazioa arautzen duena.

- Espedientea eta klausula administratiboak 30 egun jendaurrean edukitzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta eta Gardentasun Atarian, Tolosako Udalaren webgunean eta Udaletxeko iragarki taulan jarrita.

- Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat jotzea, eta Tolosako Ekinbide Etxeari eskaintzea Euskal Herria plazako 1. zenbakidun eraikinaren erabilera pribatiboaren administrazio kontzesioa”.

BIGARRENA- 2022ko abuztuaren 17an aipatutako erabakia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Baita, ondoko hedabideetan ere:



- Web orrian eta Gardentasun Atarian.
- Iragarkia taulan, 2022ko abuztuaren 26tik urriaren 13ra arte.

Informazio publikoko epean iradokizunik egon ez zenez behin betiko onartua izan da.

HIRUGARRENA- 2022ko urriaren 14ko datarekin, Tolosako Turismo Ekimenen Zentroa Elkarteari gonbidapena bidali zitzaion, prozeduran parte hartzeko 2022ko azaroaren 16arteko mugarekin.

Pleguaren arabera, Erakundeak honako dokumentazio hau aurkeztu behar zuen:

“DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

A) Enpresaburuaren nortasun juridikoa eta, hala badagokio, ordezkari eta egiaztatzen duten agiriak.

— Beste baten izenean agertzen direnek edo eskaintzak sinatzen dituztenek zuzenbidean egokia den edozein modutan egiaztatu beharko dute ordezkari eta.

— Lizitatuak pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, legez eska daitekeenean.

— Era berean, ordezkatzeko ahalorde askietsia duen pertsonak bere nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza aurkeztu beharko du.

_ Erantzukizunpeko adierazpen bat, kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duena, eta berriaz adieraziko du egunean dituela indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, Udalarenak barne, eta Gizarte Segurantzarekikoak. Eredua atxikitzen zitzaien.

B) Jardueraren memoria eta memoria ekonomikoa.

-Ondasunaren erabilera eta helburua azalduko dituen Memoria. Egingo diren ihardueren deskribapena eta emakidaz emango den ondasun eta ekipamenduen ustiapena.

-Memoria ekonomikoa dagokionez, alderdi ekonomikoei buruzko informazio guztia jaso beharko du, eta ustiatzearen kontuan hartu beharreko magnitude guztiak aipatuko ditu: inbertsioak, erabiltzaile kopurua. Jardueraren sarrerak eta gastuak



zehaztu beharko ditu, baita eraikina eta instalazioak berrikusteko eta mantentzeko plan bat ere. Era berean, hornidurak eta ekipamenduak berritzeko aurreikuspena.

Era berean, jendeari zuzendutako zerbitzu pribatuen prezioak aurkeztu beharko dituzte.

LAUGARRENA-2022ko azaroaren 16an, dokumentazioa aurkeztu zuen. Aurkeztutako dokumentazioa, ordea, ez zen zuzena izan. Izan ere, A) puntuan aipatutako dokumentazioari dagokionez, eskatutakoa dokumentua zuzen aurkeztu zuen. Hala ere, B) puntuari dagokion dokumentazioa ez zegoen osatuta.

Hori dena kontuan izanik, Zinegotzi Delegatuak, 2022ko abenduaren 2an, 2022/2846 Dekretua eman zuen, ondorengoa ebatziz:

“Lehena.- Tolosako Turismo Ekimen Zentroari hilabeteko epea ematea, ebazpen hau jasotzen denetik kontaktzen hasita, honako agiri hauek aurkez ditzan:

B) JARDUERAREN MEMORIA ETA MEMORIA EKONOMIKOA.

-Ondasunaren erabilera eta helburua azalduko dituen Memoria. Egingo diren ihardueren deskribapena eta emakidaz emango den ondasun eta ekipamenduen ustiapena (Emakida-aldi osoari dagokiona).

-Memoria ekonomikoari dagokionez, alderdi ekonomikoei buruzko informazio guztia jaso beharko du, eta ustiategian kontuan hartu beharreko magnitude guztiak aipatuko ditu: inbertsioak, erabiltzaile kopurua. Jardueraren sarrerak eta gastuak zehaztu beharko ditu, baita eraikina eta instalazioak berrikusteko eta mantentzeko plan bat ere. Era berean, hornidurak eta ekipamenduak berritzeko aurreikuspena.

Era berean, jendeari zuzendutako zerbitzu pribatuen prezioak aurkeztu beharko dituzte, emakida-aldi osoari dagokiona.

Memoria ekonomikoa emakidaren aldi osoari buruzkoa izango da.

Bigarrena- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, eta ohartaraztea aipatutako epean dokumentazio hori aurkezten ez badu, prozeduran atzera egin duela ulertuko dela.”

BOSTGARRENA-2023ko otsailaren 15ean dokumentazioa aurkeztu zuen.

Kultura, Festak eta Gazteriako Zerbitzuburuak, 2023ko martxoaren 17an txostena egin zuen. Horren arabera, bi dokumentuek egoki erantzuten diete udalak eskatutako informazioei eta emakida egiteko arrazoi sendoak ematen dituzte. Bata



nahiz besteak errealistak, orekatuak eta bideragarriak dira, Tolosako herriaren bizitza kulturalari ekarpen oso positiboak emateko modukoak. Beraz, Proposatu du CIT-TEE elkarteari Euskal Herri Plaza 1zenbakiko eraikina emakidan ematea. Bestalde, memoria ekonomikoak formalki betetzen ditu baldintza pleguak eskatutakoak.

SEIGARENA -Aurrekoa kontuan hartuz, Plenoak 2023ko martxoaren 30ean, ondorengo erabakia hartu zuen:

“**«Lehena.**- Tolosako Ekinbide Etxe /Asociación “Centro de Iniciativas Turísticas” Elkarteari errekeritzea, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita,dokumentu hauek aurkez ditzan:

- Egunean dituela indarrean dauden xedapenak ezartzen dituzten Zerga-behebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

-Behin betiko bermea, 142.099 eurokoa, eratu izanaren agiria.

Bigarren.- Euskal Herria Plazako 1ean kokatutako eraikina emakida esleitzea Tolosako Ekinbide Etxeari, **beti ere aurreko atalean ebatzitako errekerimendua bete eta gero, bere terminoetan**. Esleipen honen iraupena hogeitaz urtekoa izango da, hitzarmena sinatzen den unetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.- Hitzarmena formalizatzea, 15 laneguneko gehienezko epean, adjudikazioa gauzatu ondoren. Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko, hitzarmena sinatzea barne.

Laugarrena.- Elkarrekin "Mantentze-lanen Liburuan" zehaztutako mantentze-, konponketa- eta berritze-betebeharren erantzukizuna izango du. Hori kontratu-agiri bat izango da, eta, beraz, aurkeztutako memoria ekonomikoan horretarako ezarritako zenbatekoak orientagarriak baino ez dira izango.

Bosgarrena.- Esleipen hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun Atarian, Tolosako Udalaren Web gunean eta Udaletxeko iragarki taulan».

2023ko apirilaren 28an, sarrera erregistroa 2023/6220 zenbakia duen idatziaren bidez eskatutako dokumentu hauek aurkeztu zituen:

- Egunean dituela indarrean dauden xedapenak ezartzen dituzten Zerga-behebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.



Ondorengoa, ordea, ez zuen aurkeztu:-Behin betiko bermea, 142.099 eurokoa, eratu izanaren agiria.

Beraz, Euskal Herria Plazako 1ean kokatutako eraikinaren emakida ez da gauzatu aurreko atalean ebatzitako errekerimendua ez delako bete.

Horregatik, Tolosako Ekinbide Etxe /Asociación "Centro de Iniciativas Turísticas" Elkarteak Euskal Herria Plazako 1ean kokatutako eraikina zuzeneko emakida prozeduran atzera egin duela deklaratu behar da eta prozedura amaitutzat eman.

TXOSTEN JURIDIKOA:

LEHENA. Toki-entitateetako ondasunak bitan banatzen dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak edo propioak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzerakoan, erabilera pribatibotzat hartuko da jabari publikoko zati bat okupatzea, baina gainerako interesatuen erabilera mugatzen duela edo kanpo uzten duela.

Kontzesio edo emakida administratiboaren bidez egingo da jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa.

Kasu honetan, Tolosako Ekinbide Etxearen esku utzi nahi den eraikuntzak ondorengo deskripzioa du udal inbentarioan:

Nombre de la finca: Plaza Euskal Herria 1
Naturaleza del inmueble:urbana
Naturaleza del dominio:Servicio Público.

Tolosako Ekinbide Etxeari Euskal Herri Plaza 1.zenbakiko eraikina lagatzeko era emakida da.

BIGARRENA. Aplika daitekeen legeria:

— 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena; 74. eta 75. artikulua eta 78.etik 91.era bitartekoak.

— 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; 93 eta 137.4 artikulua.

— 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; 9. artikulua eta 115.etik 155.era bitartekoak, eta Bigarren, Hirugarren eta



Hamabosgarren Xedapen Gehigarriak.

HIRUGARRENA.

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 110.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ondare-ondasun eta ondare-eskubideen gaineko kontratu, hitzarmen eta gainerako negozio juridikoak, beren prestaketa eta esleipenari dagokionez, lege honek eta hura garatzeko xedapenek arautuko dituzte, eta arau horietan aurreikusten ez dena Administrazio Publikoetako kontratuei buruzko legeriak arautuko du. Haien eraginak eta azkentzeak lege honek eta zuzenbide pribatuko arauak arautuko dituzte.

Era berean, 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duenak, bere 87.2 artikulua xedatutakoaren arabera, kontzesioak emango dira aurrez lizitazioa eginda eta Administrazio Publikoetako kontratuen legearekin bat etorrira.

Hari beretik, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 93.1 artikuluan dio (oinarrizkoa, Azken Xedapenetako Bigarrenean ezarritakoaren arabera) jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagoka-araubidean egin behar direla.

LAUGARRENA. Jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagoka araubidean egin behar dira. Halere, zuzenean eman ahal izango dira 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 137.4 artikuluan jasotako supostu edo kasuetan, ohiz kanpoko inguruabarrak badira tartean, behar bezala justifikatuta, edo legetan ezarritako beste kasu batzuetan.

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 137.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipen zuzena egin ahal izango da ondorengo kasuetan:

a) Eskuratzailerak beste administrazio publiko bat denean edo, orokorrean, sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko edozein pertsona juridiko. Horren ondorioetarako, sektore publikoko zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa honako hau izango da: merkataritza-sozietate bat, baldin eta kapitalaren gehiengoa badu, zuzenean edo zeharka, administrazio publiko batena edo batzuen edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko batena edo batzuen.

b) Eskuratzailerak irabazteko asmorik ez duen entitate bat denean, onura publikokotzat joa, edo lege aitortutako eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat.



c) Higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoko zeregin bat betetzeko edo interes orokorreko helburu bat gauzatzeko, baina aurreko bi paragrafoetan aurreikusita ez dagoen pertsona batek egina.

d) Besterentzeko sustatutako lehiaketa edo enkantea huts deklaratzenean, edo haiek huts egiten badute esleipendunak bere betebeharrak bete ez dituelako, beti ere urtebete igaro ez bada haiek egin zirenetik. Kasu honetan, besterentzeko baldintzak ezin dira izan aurrez iragarritakoak baino kaskarragoak izan edo esleipena eman zeneko baldintzak baino kaskarragoak izan.

e) Orubean ezin eraiki denean, formagatik edo tamaina txikiagatik, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

f) Ekonomikoki ustiatzeko adinako azalerarik ez duen landa-finka denean, edo bertan bere izaerarekin bat datorren erabilera bat gauzatu ezin denean, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

g) Ondasunaren edo eskubidearen titulartasuna bi jaberena edo gehiagorena denean eta salmenta jabe mugakide baten edo gehiagoren alde egiten denean.

h) Salmenta egiten denean lege-xedapenez aitortutako lehentasunezko eroste-eskubidea duenaren alde.

i) Ez ohiko arrazoiak tarteko komenigarritzat jotzen denean salmenta higiezina okupatzen ari denaren alde egitea.

Kasu honetan, zuzeneko emakida, puntu honetan zegoen justifikatuta: Administrazio Publikoaren ondarea xedatzen duen 33/2003 Legea, 137.4.b) artikuluan.

Oinarri horiek kontutan izanik zuzeneko emakida prozesuaren baitan, Plenoak 2023ko martxoaren 30ean, goian aipatutako erabakia hartu zuen. Errekeritutako epean, ordea, interesdunak bermea jarri ez duenez, ondorengo arautegia aplikagarria izango da:

Pleguaren hamar eta hamaikagarren klausulak

Hamargarren klausula: Dokumentazioa eskatzea:

Kontratazio-organoak lizitatuazileari errekerimendua egingo dio, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurretiko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan, zehazki, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta



bidezko den behin betiko bermea, 142.099 eurokoa, eratu duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Bermea honela gordailutuko da:

— Eskudiruzko bermeen kasuan, Gordailuen Kutxa Orokorrean edo kutxa horrek Ekonomia eta Ogasuneko ordezkarietzan dituen sukurtsaletan, edo autonomia-erkidegoko edo toki-erakunde kontratatzaileetako —horien aurrean izango du eragina— kutxetan edo establezimendu publiko baliokideetan.

— Idatzizko baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean, Kontratazio-organoaren aurrean.

Hamaikagarren klausula. Emakidaren esleipena.

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak bost egun balioduneko epean adjudikatu beharko du emakida, dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.”

-Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikulua (osagarri gisa aplikatu daiteke kasu honi) honako hau dio:

145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuari kasuan kasuko zerbitzuek eskatuko diote, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean, 140. artikuluko 1. paragrafoa a) -tik c) -ra bitarteko idatz-zatietan aipatzen diren inguruabarrak justifikatzeko agiriak aurkez ditzala, baldin eta aldez aurretik aurkeztu ez bada, bai lizitatuarenak, bai haren gaitasunetara jotzen duten beste enpresenak, artikuluko horretako 3. paragrafoa bigarren letrakadan ezarritakoari kalterik egin gabe 76.2 artikuluan arabera kontratua gauzatzeko erabiliko edo atxikiko zituen baliabideak benetan edukitzea; **eta bidezko den behin betiko bermea eratu izana.** Ziurtagiriak bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoen bidez egin ahal izango dira, baldintza-agirietan besterik ezartzen ez bada.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatuari eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren (BEZik gabe) ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, zigor gisa. Zenbateko hori behin-behineko bermearen aurka ordainduko da, baldin eta eratu bada, 71. artikuluko 2. paragrafoa a) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.

-Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 84.1 artikulua:



“Prozedurari amaiera emango diote: ebazpenak, atzera egiteak, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egiteak, uko egite hori ordenamendu juridikoak debekatzen ez duenean, eta iraungitzaletzat jotzeak.

-Era berean, lege horren 94.artikulua, atzera egitea arautzen duena.

Organo Eskuduna Udalbatza:

Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017ko Bigarren Xedapen Gehigarriko 9. eta 10. puntuek ezarritakoarekin bat. Honela dio artikulu horrek:”Toki Entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango da haietan kontratu pribatuak egitea, bai eta toki entitateen ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskurtzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez bada, 100.1 artikuluan zehaztutako baldintzekin bat, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa eta hiru milioiko euro baino gehiago;ondarea besterentzea ete beren eskumena izango da, balioa ez bada ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa.

Muga hori gainditzen bada Plenoarena izango da.

Kasu honetan, 2022ko maiatzaren 9an, Hirigintzako Departamentu-buruak txostena egin du. Bertan, Euskal Herri Plazako 1.zenbakiko eraikuntzaren balioa ondorengo dela informatu du: 4.736.632,49 euro.

Beraz, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a baino handiagoa izanik Plenoari dagokio bere onarpena.

Erabakia hartzeko ez da beharrezkoa gehiengo absolutoa, Toki Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 47.j artikulua eskatzen baitu gehiengo hori aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 20a baino handiagoa bada. Kasu honetan gehiengo sinplea nahiko da.

Tolosako udaleko Antolakuntza Batzordeak irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2023ko maiatzaren 17an izandako Ohiko bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa, Mendia, Egoitz Sorozabal Iturain, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Hots, irizpenaren proposamena aho batez onartu da.

Beraz, honako irizpena onartzea proposatzen zaio Tolosako udalbatza osoari

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako Ekinbide Etxe /Asociación “Centro de Iniciativas Turísticas” Elkarteak Euskal Herria Plazako 1ean kokatutako eraikina zuzeneko emakida prozeduran atzera egin duela deklaratzeko.

BIGARRENA.- Euskal Herria Plazako 1ean kokatutako eraikina zuzeneko emakidan Tolosako Turismo Ekimenen Zentroari esleitzeko prozedura amaitutzat ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun Atarian, Tolosako Udalaren Web gunean eta Udaletxeko iragarki taulan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui bere eta Aitana Amondarain Esquisabel zinegotziaren izenean, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez onartu du Euskal Herria plazako 1 zenbakian kokatutako eraikina zuzeneko emakida esleitzeko prozedura hutsik deklaratzeko, Tolosako Ekinbide Etxeak atzera egin duelako.

Xarles Iturbe Pasaban zinegotzia sartu da.

8. **TOLOSAKO UDALAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ERROLDA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023eko maiatzaren 17ko irizpena

AURREKARIAK

Tolosako udalbatzak, 2023ko martxoaren 2an egindako osoko bilkuran, bestek beste, honako erabaki hauek hartu zituen:



“LEHENA.- Tolosako udalaren jabetzakoak diren eta jarraian izendatzen diren ondasunen izaera juridikoa aldatzea, eta zerbitzu publikoari atxikitzea:

.....
BIGARRENA.- Tolosako udalaren ondasun eta eskubideen erroldaren berrikuspena hasieraz onartzea.

HIRUGARRENA.- Espedientea eta errolda informazio publikoan jartzea hilabete bateko epean. Epe honen barruan interesatuek aukera izango dute dokumentazioa aztertu eta alegazio edo iradokizunak aurkezteko, halaber, erroldako informazioa kontsultatzeko .Epea iragan eta inolako alegaziorik ez balitz aurkeztuko, Tolosako udalaren ondasun eta eskubideen errolda behin betikoz onartutzat emango da.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian. Halaber, Tolosako web orrian lotune bat gaituko da herritarrek erroldako zerrendak kontsultatu ahal izateko.”

Informazio publikoko izapidearen emaitza honela laburtzen da:

ESPEDIENTEA	UDAL ONDASUNEN ERROLDA
ESPEDIENTEAREN KODEA	2023INVE0001
HASIERAKO ONESPENAREN DATA	2023ko martxoaren 2a
HASIERAKO ONESPENAREN ORGANOA	Osoko Bilkura
Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean	2023ko martxoaren 30ean (GAO ZKIA 62): https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2023/03/30/c2301957.pdf
Iragarkia udaletxeko taulan	2023ko martxoaren 30ean
Iragarkia web orrian:	2023ko martxoaren 31n https://udala.tolosa.eus/eu/gardentasuna/gardentasuna-langileriari-eta-udal-antolabideari-dagokienez/udal-langileria-eta https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula/ondasunen-eta-eskubideen-udal-inbentarioa



ESPEDIENTEA	UDAL ONDASUNEN ERROLDA
Informazio publikoko epearen amaiera:	2023ko maiatzaren 2a
Jasotako iradokizun edo alegaziorik	EZ DAGO
Zuzenketa proposamenak	BAI: -1.1.000085 (Lokala Rondilla kalea 31). Jabetza erregistroko inskripzioa kontuan harturik, ondasunaren izaerak patrimoniala izan behar du.

Laburpenean aipatzen den moduan, 1.1.000085 kodea duen lokala, Rondilla Kaleko 31. Zk.ko beheko solairuan kokatutakoa, jabari publikoari atxiki zitzea, baino bere izaera juridikoa eta bere erabilera ondare-izaerakoak dira.

Modu guztietan, espedientea izapidetu bitartean, egiaztatu da informazio eta dokumentazio ugari falta dela (erregistro-inskripzioak, eskriturak eta abar falta dira), eta inbentarioa eta ondare-kontabilitatearen informazioa bat ez datozela; beraz, ekitaldi honetan aurrekontu-zuzkidura bat dago egiteke dauden zereginak gauzatu ahal izateko.

AZTERKETA JURIDIKOA

Akatsaren zuzenketa

39/2015 Legeak Herri-Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak, bere 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak. Kasu honetan, Rondilla Kaleko 31. Zk.ko beheko solairuan kokatzen den lokalaren izaera juridikoa zuzendu behar da, ondare gisa sailkatuz.

Behin betiko onespena emateko jardunbidea eta organo eskuduna.

1372/86 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenak, honako hau xedatzen du bere 33. Artikuluan:



1. La rectificación del inventario se verificará anualmente, y en ella se reflejarán las vicisitudes de toda índole de los bienes y derechos durante esa etapa.

2. La comprobación se efectuará siempre que se renueve la Corporación y el resultado se consignara al final del documento, sin perjuicio de levantar acta adicional con objeto de deslindar las responsabilidades que pudieran derivarse para los miembros salientes y, en su día, para los entrantes.

Aipaturiko Dekretuaren 34. artikulua eta 7/85 Legearen 22.2.l) artikulua toki-korporazioaren osoko bilkurari esleitzen diote inbentarioa onartu, zuzendu eta egiaztatze eskumena.

Behin inbentarioa onartuta, beronen Liburua eratu beharko da, TEOEk ezarritako baldintzetan:

- a) Idazkariari dagokio Ondasunen Inbentarioa eman eta gordetzeko erantzukizuna, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuko 3.2.k artikulua araber.
- b) Idazkariak autorizatuko du, Alkatezaren oniritziarekin (TEOE 32. artikulua) eta bere kopia bat eta egiten diren zuzenketak Estatuko Administrazioari eta Autonomia Erkidegoko Administrazioari helaraziko zaio.
- c) Ondasun bakoitzak, dagokion epigrafean, zenbaki korrelatibo bat izango du, eta ondasun batetik bestera espazio bat utzi beharko da txuriz, ekitaldian egiten diren aldaketak jasotzeko (TEOE 19. artikulua).
- d) Ondasunari dagokion dokumentazioa dagoen artxiboaren signatura (TEOE 30.2 artikulua).

Azkenik, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, bere 8.3 artikuluan xedatutakoaren araber, Herri-administrazioek beren jabetzakoak diren edo eskubide errealen bat duten ondasun higiezin zerrenda argitaratuko dute.

Tolosako udaleko Antolakuntza Batzordeak irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2023ko maiatzaren 17an izandako Ohiko bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa, Mendia, Egoitz Sorozabal Iturain, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Hots, irizpenaren proposamena aho batez onartu da.

Beraz, honako irizpena onartzea proposatzen zaio Tolosako udalbatza osoari

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako Udalaren jabetzakoa den eta Rondilla kaleko 31. zenbakiko beheko solairuan dagoen lokalaren deskribapena zuzentzea, ondare-izaerako ondasuna dela aitortuz..

BIGARRENA.- Tolosako udalaren ondasun eta eskubideen errolda behin betiko izaeraz onartzea.

HIRUGARRENA.- Tolosako Jabetza Erregistrora bidaltzea zerbitzu publikoari atxikitako eta udal honen jabetzakoak diren honako ondasun hauei dagozkien ziurtagiriak, haien izaera juridikoari dagokion deskribapena zuzen dezaten:

- 1.2.000005 ANTIGUA VIVIENDA DEL ENTERRADOR
- 1.2.000006 ANTIGUA VIVIENDA DEL ENCARGADO DEL VERTEDERO
- 1.1.000042 LOCALES IGERALDE KALEA, N°2
- 1.1.000045 LOCALES G-H ZAHARRA PLAZA, N°4
- 1.1.000051 LOCAL COMERCIAL ZAHARRA PLAZA, N°10
- 1.1.000054 LOCAL COMERCIAL N°54, AITA LARRAMENDI KALEA, 7°D
- 1.1.000055 LOCAL COMERCIAL N°55, AITA LARRAMENDI KALEA, 7°D
- 1.1.000056 LOCAL COMERCIAL N°62, AITA LARRAMENDI KALEA, 9°D
- 1.1.000057 LOCAL COMERCIAL N°63, AITA LARRAMENDI KALEA, 9°D
- 1.1.000058 LOCAL COMERCIAL N°70, AITA LARRAMENDI KALEA, 9°C
- 1.1.000059 LOCAL SOTANO ANDRE MARIA KALEA, N°12
- 1.1.000060 LOCAL SOTANO ANDRE MARIA KALEA, N°14
- 1.1.000061 LOCAL SOTANO ANDRE MARIA KALEA, N°16
- 1.1.000062 LOCAL PLANTA BAJA ANDRE MARIA KALEA, N°12
- 1.1.000063 LOCAL DE EQUIPAMIENTO AMAROTZ AUZOA, N°34-A DER
- 1.1.000064 LOCAL DE EQUIPAMIENTO AMAROTZ AUZOA, N°34-A IZQ
- 1.1.000065 LOCAL DE EQUIPAMIENTO AMAROTZ AUZOA, N°34-B DER
- 1.1.000066 LOCAL DE EQUIPAMIENTO AMAROTZ AUZOA, N°34-B IZQ
- 1.1.000067 LOCAL PLANTA BAJA KONDEANEKO ALDAPA, N° 20
- 1.1.000068 LOCAL PLANTA BAJA ARABA ETORBIDEA, N° 5
- 1.1.000069 LOCAL COMERCIAL AITA LARRAMENDI KALEA, N°3 B
- 1.1.000071 LOCAL COMERCIAL PLANTA BAJA BERDURA PLAZA, N° 2
- 1.1.000073 LOCAL PLANTA BAJA KORREO KALEA, N° 11



- 1.1.000074 LOCAL PLANTA BAJA ANDRE MARIA KALEA, N°7
- 1.1.000075 LOCAL COMERCIAL UZTURRE KALEA, N°25 4°
- 1.1.000076 LOCAL COMERCIAL MADALEN KALEA, N°1 2°
- 1.1.000077 LOCAL COMERCIAL MADALEN KALEA, N°2 3°
- 1.1.000078 LOCAL COMERCIAL EUSKAL HERRIA PLAZA, N°8
- 1.1.000079 LOCAL PLANTA BAJA 1.1. ELKANO KALEA, N°15
- 1.1.000080 LOCAL PLANTA BAJA 1.2. ELKANO KALEA, N°16
- 1.1.000081 LOCAL PLANTA BAJA, INPERNU KALEA, N°5
- 1.1.000082 LOCAL PLANTA BAJA INPERNU KALEA, N°7 1°
- 1.1.000083 LOCAL PLANTA BAJA INPERNU KALEA, N°10 2°
- 1.1.000084 LOCAL PLANTA BAJA FELIPE GORRITI PLAZA, N°1
- 1.1.000086 LOCAL PLANTA BAJA AROZTEGIETA KALEA, N°4
- 1.1.000087 LOCAL PLANTA BAJA ZERKAUSIA KALEA, N°4
- 1.1.000088 LOCAL 5 PLANTA BAJA GIPUZKOA PLAZA, N°1

LAUGARRENA.- Udal ondasunen zerrenda ikusgai jartzea, modu iraunkorrean, Tolosako udalaren gardentasun atarian.

BOSGARRENA.- Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, eta udalaren web orrian. Halaber, Departamentu guztiei jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui bere eta Aitana Amondarain Esquisabel zinegotziaren izenean, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez erabaki du Tolosako Udalaren ondasun eta eskubideen errolda behin betiko onartzea.

9. TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.

Tolosako udaleko Antolakuntza batzordeak, 2023ko maiatzaren 17an egindako bileran, gehiengoz, honako lripena onartu zuen:



IRIZPENA

LEHENA.- Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen aldaketa onartzea, artikuluz artikulua, genero ikuspegia txertatuz gaztelaniazko bertsioan.

Zehazki, ondorengo artikulua aldatzea onartzen da:

ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
5. artikulua	5. artikuluari eranstean zaio: Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua aplikatuko zaio.
9. artikulua	Mankomunitatearen egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6 zk.an dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomankomunitatea.eus delarik.
11. artikulua	Eransten zaio 4. Atala: Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.
16. artikulua	Eransten zaio 3. Atala: 3. Mankomunitatea bere organoen osieran emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bermatzen saiatuko da, non sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak izango duen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren arabera.
18. artikulua	Artikuluaren hasierari eranstean zaio: Batzarra udalerrin mankomunitate bakoitzeko ordezkari banak osatzen du
19. artikulua	19. artikuluari eranstean zaio: Udalerrin bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak eratzin diren bakoitzean.
23. artikulua	d) atala aldatzen da: d) Estatutuen aldaketen onespina
25. artikulua	5. azpiatala eranstean zaio: 5. Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzeko, hautagaiak gehiengo osoz onartu beharko dira lehen bozketan, gehiengo soilarekin bigarren bozketan, eta adostasunik ez badago, lehendakariak hautatuko ditu.
46. artikulua	3. azpiataleko a) puntua aldatzen da: a) Estatutuen aldaketa proiektua



ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
55. artikulua	<p>55. artikuluari eranstean zaio:</p> <p>Estatutu hauetako 11.2 atalean aurreikusitakoa betez ematen diren zerbitzu berriak, Udalen eskariz, eskatzaileek soilik ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izango balira, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da.</p> <p>Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.</p>
56. artikulua	<p>56. artikulua 2 eta 3 atalak aldatzen dira eta 4 eta 5 atalak eranstean zaizkie</p> <p>2.- Udalen ekarpenak udalerrri bakoitzaren biztanle kopuruaren proportzioan eta udal bakoitzak eskatutako bilketa sistemaren arabera kalkulatu dira. Biztanle kopuruaren kalkulurako, Mankomunitateko kide diren udalerrietako erroldetan ofizialki erregistratutako biztanle-kopurua erabiliko da. Kasuan kasuko udal-idazkariak ziurtagiri bat egingo dute urtero, eta ziurtagiri horretan adieraziko dute zein den dagokion zifra, idazkari guztientzat zehazten den egun zehatzean.</p> <p>3.- Zerbitzu bakoitzari dagozkion udalen ekarpenak kalkulatzeko irizpideak, erak eta epeak garatu eta zehaztuko ditu Batzarrak botoen bi hereneko gehiengoarekin, gainera gehiengo horrek, gutxienez, mankomunitateko udalen bi heren ordezkatu beharko du.</p> <p>4.- Urteko aurrekontu proiektuak udalerrien urteko ekarpen finko eta aldakorrei buruzko azterlana jasoko duen eranskina barneratuko du.</p> <p>5.-Ez ordaintzeak arduradun den udala eskubideez gabetzea ekarriko du. Mankomunitateak ez dizkio bere zerbitzuak emango horrelako kasuan dagoen Udalari bere obligazioak betetzen ez dituen bitartean. Horretarako, Batzorde Iraunkorrek diru sarrera egin dezan errekerituko dio Udalari eta hiru hilabeteko epean hala ez badu egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badu, Mankomunitateak ez dio zerbitzurik emango egun hartatik aurrera. Eskubideez gabeturiko Udalen ordezkariak ezin esku hartuko dute botazioetan, eta kasu bakoitzean beharko diren gehiengoaren kontaktetan ere ez dira kontuan hartuko.</p> <p>Udal horiek Batzorde Iraunkorreko partaide badira, eskubide gabe geratzearen ondorioz, Batzorde horretan dituzten eskubideak baliorik gabe geldituko zaizkie.</p>



ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
60. artikulua	<p>60. artikulua honela idatzita geldituko da: Estatutuen aldaketa burutzeko jarraitu beharreko prozedura ondokoa izango da:</p> <p>Ekimena ukituko duen alderdia zehaztuz dagokio: Lehendakaritzari edo Batzarreko legezko ordezkari kopuruaren herenari edo Batzorde iraunkorrari edo guztira zuzenbideko biztanleria 25.000 biztanle edo gehiagokoa daukaten bost Udali gutxienez.</p> <p>Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari.</p> <p>Batzarrak estatutuen proiektua onartuko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz.</p> <p>Proiektua onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta dagokion udaletako iragarki ohelean jarriko da ikusgai hilabeteko epean.</p> <p>Behin publikaturik Foru Aldundira bidaliko da honek informa dezan. Hilabeteko epean honen inguruko iritzirik ematen ez baldin badu, hau aldekotzat hartuko da.</p> <p>Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik.</p> <p>Erabakia onartuta, estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.</p>
61. artikulua	61. Artikulua ezabatzen da.
62. artikulua	<p>Honako zuzenketa proposatzen da: Erabaki horrek eraginkortasun juridikoa izango du estatutuak aldatzeko prozedura amaitu ondoren.</p> <p>Bestelako kasuan, ez da onartzen artikulua aldatzea</p>
63. artikulua	<p>Honako zuzenketa proposatzen da: Erabaki horrek eraginkortasun juridikoa izango du estatutuak aldatzeko prozedura amaitu ondoren.</p> <p>Bestelako kasuan, ez da onartzen artikulua aldatzea</p>
64. artikulua	<p>Honako zuzenketa proposatzen da: Erabaki horrek eraginkortasun juridikoa izango du estatutuak aldatzeko prozedura amaitu ondoren.</p> <p>Bestelako kasuan, ez da onartzen artikulua aldatzea</p>
65. artikuluarri	<p>1. atalari eransten zaio: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu beharko da.</p>



ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
Bigarren xedapen gehigarria	Honako zuzenketa proposatzen da: Erabaki horrek eraginkortasun juridikoa izango du estatutuak aldatzeko prozedura amaitu ondoren. Bestelako kasuan, ez da onartzen artikulua aldatzea
Zazpigarren xedapen gehigarria	Zazpigarren xedapen gehigarriari eransten zaio: Hortaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko da.

BIGARRENA.- Bidaltzea erabaki hauen ziurtagiria Tolosaldeko Mankomunitateari.

2023ko maiatzaren 24an, 2023-00000007345 erregistro zenbakia duen idatziaren bitartez, Udala osatzen duten EAJ-PNV, EH BILDU eta PSE-EE hiru talde politikoez, emendakina aurkeztu zuten 2023ko maiatzaren 17an antolakuntza batzordeak jaulkitako diktamena zuzentzeko.

Emendakina aztertu eta Udalbatzaren bozketa honako izan zen:

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui bere eta Aitana Amondarain Esquisabel zinegotziaren izenean, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu du emandakina.**

Jarraian, 2023ko maiatzaren 17ko **Antolakuntza batzordearen irizpenaren zuzenketa** aztertu da:

AURREKARIAK

Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkariak honako hauek azaldu ditu:



- 1.- 2019ko urriaren 24an egindako bilkuran, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen estatutuak aldatzeko jardunbideari hasiera ematea, eta hori bideratzeko aholkularitza juridikoa kontratatzea.
- 2.- 2020ko uztailaren 13an, Batzarrak estatutuak berritzeko proiektuaren lanketa zerbitzua adjudikatu zuen.
- 3.- Batzarrak, 2020ko urriaren 8an egindako bileran, erabaki zuen estatutuak berritzeko mahai teknikoa izendatzea, guztiak Batzorde Iraunkorreko kideak.
- 4.- 2022ko martxoaren 14an estatutuak aldatzeko proposamena aurkeztu zen Batzarrean.
- 5.- 2022ko azaroaren 7an, Batzarrak hasierako onespena eman zion Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketari.
- 6.- Estatutuak aldatzeko proiektua jendaurrean jarri zen hilabete batez, 2022ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (215 zk.) eta kide diren udalen iragarki tauletan argitaratutako iragarkien bidez.

Jendaurrean erakusteko izapidean hiru alegazio idatzi aurkeztu ziren: Berrobiko Udalarena, Larraulgo Udalarena eta Andoaingo Udaleko talde sozialistarena.
- 7.- 2023ko urtarrilaren 30ean, Batzarrak alegazio horiek ebatsi, estatutuak aldatzeko proiektua onetsi eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, dagokion txostena egin zezan.
- 8.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena egin zuen, nahitaezkoa eta ez loteslea, 2023ko martxoaren 20an.
- 9.- 2023ko apirilaren 3an, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere txostenean proposatutako aldaketa gomendioak txertatu ondoren, mankomunitateko udaletara igortzea, beren udalbatzek behin betiko onetsi ditzaten.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Irizpen-proposamen honetan, nagusiki jasotzen dira Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkariak igorritako testua. Tolosako udal Idazkariaren ekarpenak morez eta Calibri-12 tipoan jaso dira .



Araudia

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: 22, 44 eta 47 artikulua.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutua onartzen duena: 37.3 c) artikulua.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 101-103 artikulua.

Azaroaren 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Osoko Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foro organoen arteko harremanei buruzkoa: 7 a) 3 artikulua.

Apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen: 1-17 artikulua; 29 eta 30 artikulua, besteak beste.

Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuak 60 artikulua.

128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena 3.3 d) 1 artikulua.

Gaiaren azterketa

Estatutuak aldatzeko arrazoiak dira:

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauari egokitzea, bere xedapen iragankor bakarrak agindu bezala.

2.- 56. artikulua aldatzea, udalen ekarpenak kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideak estatutuetan islatzeko.

3.- Genero ikuspegia txertatzea: idazketa aldetik gaztelaniazko bertsioa bere osotasunean berrikusi eta, oro har, gizonetzko eta emakumezkoen berdintasuna arautzeko legeak isla izan dezan.

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauari egokitzea, bere xedapen iragankor bakarrak agindu bezala.

Xedapen iragankorrak, honako hau dio:



“Foru Agindu hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, haren aurretik eratutako mankomunitate eta kontsorzioek egokitu egin behar dituzte beren estatutuak foru arauan ezarritako aginduen arabera, 11. artikuluan adierazitako tramiteei jarraituz.

Estatutuak ez badira foru arauaren arabera egokitzen, foru arau honen aurka doazen estatutuetako agindu guztiak indargabetuta geratuko dira”.

Herri kontuen Euskal epaitegiak, Tolosaldeko Mankomunitatearen behin betiko fiskalizazio txostenean, 2018koa, aipamena egin zuen gai honen inguruan, barne kontrolerako irizpenen atalean, beste alderdi batzuk azpiatalean, *“Mankomunitatearen Estatutuak 1997koak dira eta ez dituzte gaurkotu; horrek 6/2007 FAren 1. Xedapen Iragankorrak finkatutako urtebeteko epea urratzen du”.*

Beraz, ezinbestekoa da Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuak 6/2007 Foru araura egokitzea.

Foru arauaren 3.2 artikulua dio, Mankomunitatearen estatutuek ondoko puntu hauek arautu behar dituztela nahitaez:

- a) Mankomunitatean beren borondatez sartuko diren udalerriak.*
- b) Gaia, xedeak eta eskumena.*
- c) Izena.*
- d) Gobernu eta administrazio organoek izango duten egoitza.*
- e) Gobernu organoak, elkartutako udalerrien ordezkarien kopurua eta izendatu eta kargugabetzeko era.*
- f) Finantza baliabideak eta elkartutako udalerrien ekarpenak eta konpromisoak.*
- g) Iraupena eta desegiteko kausak eta prozedura.*
- h) Funtzionamendu arauak.*
- i) Kitatzeko era.*
- j) Mankomunitatera beste udalerrri batzuk sartzeko eta hango kide diren udalerrri bat edo batzuk banantzeko arau orokorrak.*
- k) Lehendakaria eta estatutuetan dauden gobernu organoetako kideak hautatu eta, horrela bada, kargugabetzeko sistema, Batzar Nagusikoak alde batera utzita.*
- l) Lehendakartzaren eta Batzar Nagusiaren edo mankomunitatean dauden udalerrri guztiak ordezkaturik dauden gobernu organoaren eskumenak edo eskuduntzak.*
- m) Funtzionarioentzat gordetako lanpostuak zehazteko irizpide orokorrak eta langileen dedikazioa eta, lanpostua mankomunitateko beste udal batekin partekatzen bada, betetzeko era.*
- n) Estatutuak aldatzeko prozedura.*
- o) Mankomunitatearen funtzionamendurako beharrezko diren puntu guztiak.*



Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuak 6/2007 Foru Araura egokitzeko, ondorengo artikulua aldatzea proposatzen da:

ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
5. artikulua	5. artikuluari eransten zaio: Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua aplikatuko zaio.
9. artikulua	Mankomunitatearen egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6 zk.an dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomankomunitatea.eus delarik.
11. artikulua	Eransten zaio 4. Atala: Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.
18. artikulua	Artikuluaren hasierari eransten zaio: Batzarra udalerrri mankomunatu bakoitzeko ordezkari banak osatzen du
19. artikulua	19. artikuluari eransten zaio: Udalerrri bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak eratzen diren bakoitzean.
23. artikulua	d) atala aldatzen da: d) Estatutuen aldaketen onespina
25. artikulua	5. azpiatala eransten zaio: 5. Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzeko, hautagaiak gehiengo osoz onartu beharko dira lehen bozketan, gehiengo soilarekin bigarren bozketan, eta adostasunik ez badago, lehendakariak hautatuko ditu.
46. artikulua	3. azpiataleko a) puntua aldatzen da: a) Estatutuen aldaketa proiektua
55. artikulua	55. artikuluari eransten zaio: Estatutu hauetako 11.2 atalean aurreikusitakoa betez ematen diren zerbitzu berriak, Udalen eskariz, eskatzaileek soilik ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izango balira, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da. Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.



ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
60. artikulua	<p>60. artikulua honela idatzita geldituko da:</p> <p>Estatutuen aldaketa burutzeko jarraitu beharreko prozedura ondokoa izango da:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ekimena ukituko duen alderdia zehaztuz dagokio: Lehendakaritzari edo Batzarreko legezko ordezkari kopuruaren herenari edo Batzorde iraunkorrari edo guztira zuzenbideko biztanleria 25.000 biztanle edo gehiagokoa daukaten bost Udali gutxienez.• Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari.• Batzarrak estatutuen proiektua onartuko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz.• Proiektua onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta dagokion udaletako iragarki oholean jarriko da ikusgai hilabeteko epean.• Behin publikaturik Foru Aldundira bidaliko da honek informa dezan. Hilabeteko epean honen inguruko iritzirik ematen ez baldin badu, hau aldekotzat hartuko da.• Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik.• Erabakia onartuta, estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.
61. artikulua	61. Artikulua ezabatzen da.
62. artikulua	Eransten zaio 6. Atala: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.
63. artikulua	63. artikuluari eransten zaio: Behin hau eginda, 6/2007 foru arauaren 10.3 artikulua arabera banatzeak, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak betetzea ekarriko du.
64. artikulua	64. artikuluari eransten zaio: Desegiteko, 6/2007 foru arauaren 12 artikulua arabera, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak bete beharko dira.
65. artikuluari	1. atalari eransten zaio: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu beharko da.



ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
Bigarren xedapen gehigarria	3. atala eranstean zaio: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.
Zazpigarren xedapen gehigarria	Zazpigarren xedapen gehigarriari eranstean zaio: Hortaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko da.

Proposatzen den aldaketarekin Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren gutxieneko betekizunak betetzen dira.

2.- 56. artikulua aldatzea, udalen ekarpenak kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideak estatutuetan islatzeko.

56. artikulua titulu da, gastuetan parte hartzea. Atal honetan mankomunitatea osatzen duten udalek mankomunitatearen gastuetan parte hartzea arautzen da, hauek udalek egiten dituzten ekarpenak dira. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren 3.2 f) atalean jasotzen da mankomunitateko estatutuek nahitaez arautu beharreko gai gisa.

Foru arauak ez du esaten zein diren udalen ekarpenak egiteko irizpideak, soilik gai hori arautu behar dela.

1997ko Tolosaldeko mankomunitateko estatutuetan 56. Artikuluak honako hau esaten zuen:

“56. atala. Gastuetan parte hartzea.

1.- Mankomunitateko kargei dagokionez, aurrekontu propioaren kontura joango den Udal bakoitzaren partaidetza, Batzarrak erabakiko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz.

2.- Administrazio karga orokorreari dagokionez, udal mankomunitate bakoitzaren parte hartzea zerbitzuen erabilpenaren arabera izango da.

3.- Gainerako kargei dagokionez, dena den, Udal bakoitzaren kasuan honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Udal bakoitzak eskuhartzen duen zerbitzu mankomunitatuen kopurua.

b) Zerbitzuen onuradunen kopurua, halakoak pertsona fisikoak edo pertsona juridikoak direla. Pertsona fisikoek dagokionez, haien helbidea hartu behar da kontuan. Pertsona juridikoek dagokionez, ez du axola elkarte egoitzaren helbidea zein den baina instalazioen kokapena eta gainerako ezaugarriak hartuko dira kontuan, bai eta haien artean, egiten dituzten isurpen edo hondakinak.

c) Biztanle kopurua eta udal bakoitzak zerbitzu bakoitzaren egiten duen erabilera.



4. *Estatutu hauetako 11.2 atalean aurrikusitakoa betez ematen diren zerbitzuak, Udalen eskariz edo haien interes partikularrez burutuak, baina eta ez Batzarraren edo Batzorde Iraunkorraren erabakiz, eskatzaileek soilki ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izatera, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da, udal bakoitzeko biztanle kopuruaren proportzioan.*

5. *Ez ordaintzeak arduradun den udala eskubideez gabetzea ekarriko du. Mankomunitateak ez dizkio bere zerbitzuak emango horrelako kasuetan dagoen Udalari bere obligazioak betetzen ez dituen bitartean. Horretarako, Batzorde Iraunkorrek diru sarrera egin dezan errekerituko dio Udalari eta hiru hilabeteko epean hala ez badu egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badu, Mankomunitateak ez dio zerbitzurik emango egun hartatik aurrera. Eskubideez gabeturiko Udalen ordezkariak ezin eskuhartuko dute botazioetan, eta kasu bakoitzean beharko diren gehiengoaren kontaktetan ere ez dira kontuan hartuko.*

Udal horiek Batzorde Iraunkorreko partaide badira, eskubide gabe geratzearen ondorioz, Batzorde horretan dituzten eskubideak baliorik gabe geldituko zaizkie.”

2007an estatutuak aldatu ziren, 11, 19 eta 56. Artikuluak. Aldaketa horrekin, udal ekarpenak Mankomunitateko erabakitze organoetan duten ordezkariaren arabera kalkulatuko zirela ezarri zen, hau da, udal erroldan ofizialki erregistratuta zegoen biztanle kopuruaren proportzioaren arabera.

